



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 23an

85 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen (2. or.).
- Foru Lege proiektua, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (14. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (34. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

- Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2000 urteko eztabaida egin dadin. Akats zuzenketa (35. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari José Andres Burguete Torres jaunak egin, fruten sektorea hobetzeko planen finantziarioari buruzkoa (36. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andres Burguete Torres jaunak egin, 1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruzkoa (37. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andres Burguete Torres jaunak egin, Hizkuntz Eskolako plazarako eskariari buruzkoa (38. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andres Burguete Torres jaunak egin, gaitasun artistikoak arautzeari buruzkoa (39. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andres Burguete Torres jaunak egin, perituen eraikina Atarrabiako udal-letxea izan dadin egiten ari diren negoziazioei buruzkoa (39. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko urriaren 2an hartutako erabakiaren bidez, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektua presako prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea irekiko da, 2000ko azaroaren 3ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENEA

Etxebizitza babesteko araubide publikoak ezinbesteko tresnak dira Konstituzioko 47. artikuluko printzipio iradokigarria gauzatuz joateko, alegia, etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea. Araubide babesle bat egote hutsa ez da haren eraginaren bermea, legea eta errealitatea eskutik ez badoaz.

Inguruabar batzuk direla-eta kostuen eta emaitza ekonomikoen arteko oreka asaldata da, oreka horrek ahalbidetzen baitzuen etxebizitza babesteko araubideen arloko legea eta errealitatea egokitzea. Telekomunikazioen arautegi eta eraikuntzaren antolamendu berriengatik instalazio eta aseguru batzuk eskuratu behar dira, lehen nahitaezkoak ez zirenak. Materialen eta lan-eskuaren prezioaren bilakaerak izan du eragin nagusia kostuak garestitzeko. Garestitze hori ekoizpenaren eskari handiaren ondorioa da, etxe gehiago egiten baitira. Horrek faktore horiek modu trinko batean erabiltzera behartu ditu, haien malgutasuna ezbaian jartzeko moduan.

Horiek horrela, etxebizitza babestuaren eraikuntzak gero eta gutxiago erakartzen ditu eraikitzaileak. Ez da bidezko eraikitzaileak behartzea etxebizitza babestuak eraikitzea. Baina posible da, gizarteak hala eskatzen baitu, pizgarri egoki batzuk erabiltzea, beste neurri babesle batzuekin batera etxebizitza mota horren eskaria asetzea ahalbidetzen dutenak.

Artikulu bakarra. 1. Etxebizitza arloko jarduketan babesgarriari aplikatuko zaien modulu ponderatua hauxe izanen da:

01 eskualdean: 115.328 pezeta metro karratu erabilgarri bakoitza.

02 eskualdean: 105.164 pezeta metro karratu erabilgarri bakoitza.

2. Foru Lege honek indarra hartzen duenez geroztik, babes ofiziala behin-behineko kalifikazioa lortzen duten etxebizitzaren gehieneko prezioak hauek izanen dira:

01 eskualdean: 126.861 pezeta metro karratu erabilgarri bakoitza araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzetarako eta 138.394 pezeta metro karratu erabilgarri bakoitza araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako.

02 eskualdean: 115.680 pezeta metro karratu erabilgarri bakoitza araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzetarako eta 126.197 pezeta

metro karratu erabilgarri bakoitza araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako.

3. Prezio tasatuko etxebizitzetako metro karratu erabilgarria 155.693 pezeta kostatuko da gehienez ere 01 eskualdean eta 141.971 pezeta 02 eskualdean.

4. Foru Lege honen ondorioetarako, 01 eskualdeak Iruñerria biltzen du, erregelamenduetan ageri diren mugekin.

Xedapen iragankorra

Foru Lege hau ez zaie aplikatuko behin-behineko kalifikazioa indarra hartu baino lehen eskatu duten babes ofizialeko etxebizitzaren espedientei.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko irailaren 4ko 67 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Parlamentuko Sozialisten Taldeak beharrezkotzat jotzen du Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arau-

tzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea, egokieragatik eta Gobernua proiektua Biltzarrean aurkeztera bultzatu duen filosofiagatik beragatik.

Gure ustez, lege proiektuan zahar-etxeen erabiltzaileek ordaindu beharrekoa oso alderdi partziala da eta lege proiektuan hura baizik ez arautzeak zaharrendako laguntza zerbitzu guztiak oro har, arrazionaltasunez, arautzeko aukera ezin hobea galtzea ekarriko du. Ez dugu ahaztu behar gure komunitatean ongizatearen estatua sendotzeko beste pausu bat dela aipatutakoa, baina kasu honetan, zaharren arloan gizarte justiziaren alde egin beharrean, ekonomiari begiratzen dioten irizpideekin jardun dela.

Zahar-etxeen erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzea beharrezkoa dela iritzita ere, pentsatzen dugu Gobernuak aurkezten duen formulak egungo Gobernuaren asmoetan dagoen politikari antzemateko bide ematen du, Administrazioak herritarrei eskaintzen dizkien gizarte zerbitzuen ordainketa banatzeko pentsatua.

Lege proiektu honetan ez da, zehazki, erabiltzaileek eragiten duten zorra finkatzerakoan mailakaterik ezartzea ere argi aurreikusten, are gehiago, gure iritziz, diru gehiago duten erabiltzaileen aldekoa da, diru baliabide gutxiago dituztenen kaltetan.

Aurrerago aipaturiko arrazoiengatik eta lege proiektuari aurkeztutako zuzenketa partzialetatik heldu direnengatik, Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen Foru Lege proiektua itzultzea eskatzen dugu.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lege osoan hitz bat aldatzeko zuzenketa

“Administrazioaz besteko zahar-etxeak” izena aldatu, eta haren ordez “zahar-etxe laguntzaileak” jartzea 1. artikuluko bigarren idatz-zatian eta, halaber, Legearen testu osoan.

Zioak: Izen hau egokiagoa bat dator beste autonomi erkidego batzuen legeriarekin eta egokiagoa da, zahar-etxe laguntzaileak baitira eta ez gizarte errealitateaz bestekoak.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua 3. lerrokadari aurkezturiko zuzenketa

“prestazioa jasotzen hasi aurreko bost urtetatik aurrera.” kendu eta haren ordez hauxe jarri:

“prestazioa jasotzen hasi aurreko bost urtetatik aurrera baloratuta, gezurrezko pobretze oro alde batera utzita”.

Zioak: Ez gertatzea erabiltzailearen ondarearen eskualdaketarik, ordaindu beharrekoa gutxitzeko xederekin.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua 6. lerrokadari aurkeztutako zuzenketa

“eskatzaila partaide deneko hura” kentzea.

Zioak: Pertsona zahar bat norberarena baino errenta maila handiagoa duen familia-unitate batean sartzeko desmotibazioa saihestea.

5. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

Artikulu honen 10. lerrokadak testu hau izanen du:

“Familia-unitatetzat hartuko da Pertsona Fisi-koen Errentaren gaineko Zerga erregulatzen duten arauetan zehaztu bezala erabiltzailea partaide ez deneko hura”.

Zioak: kontuan harturik zerbitzu hauek eragiten dituzten kostuak eta haien erabiltzaileek jaso ohi dituzten errenta txikiak, gure iritzia da diru sarrera hauek familia-unitatearen errentaren konputoan sartzea ez dela egokia.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa 2. artikuluari. Ahalmen ekonomikoa ezartzea

Azken lerrokada, “ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkutatu gero, zerbitzua aldi baterako edo behin betikoz eten ahalko da” dioena, kentzea.

Zioak: Ez dago arrazoirik zerbitzua adin eta populazio tarte horretan eteteko, ez eta ordaintzen ez den kasuetan ere.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua azken lerrokadari gehiketa egiteko zuzenketa

Lerrokadaren amaieran hauxe gehitzea: "eta halaber, zehapena eta emandakoa, korritu eta errekarquak gehituta, itzuli beharra ezarri."

Zioak: Datuak faltsutu edo ezkutatzegatik zehapena ezarri beharko da eta, dagokion kasuan, Administrazioak emandako okerreko diru-laguntzak berreskuratu beharko ditu.

8. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Ahalmen ekonomikoa ezartzeari buruzko artikuluari, 2.ari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikuluaren amaieran bi lerrokada gehitzea:

"Egiazko ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo izkutatzeko ekarpen ekonomikoa berrikusi eta atzeraeraginarekin zuzentzea ekarriko du.

Zaharretxeen erabiltzaileek ez dute ezer ordaindu beharko erretiro-saria L.G.S.tik behar-koa badute eta ondasun higiezin edo higigarriak edo bestelako etekinik, erretiro-sariaz aparte, ez badute."

Zioak: Ahalmen ekonomikoari dagokionez, txiekia edo handiegia izateagatik gerta daitezkeen muturreko egoerak aurreikustea.

**3 ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****9. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Prezio publikoei buruzko artikuluari, 3. artikuluari, gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikuluaren amaieran hiru lerrokada gehitzea:

"Nafarroako Gobernuak urtero finkatuko ditu bere zahar-etxeetan eta itundutako plazetan

ordaindu beharreko prezioak, zaharretxe horiek ematen duten laguntza mailaren arabera eta definiturik dituzten menpekotasun mailako egokiak badira; zahar-etxeak zerbitzuetan eta erabiltzaile motetan oinarrituz katalogatuko dituzte.

Prezioez gain, urtero berrikusiko dira eta publikoak izanen dira zahar-etxe berekietan edo itundutako plazetan ematen diren zerbitzuak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak horretarako ezarriko dituen kalitate eta eraginkortasun estandarren arabera.

Zioak: Prezioak zahar-etxeen gaineko arauak eta hartu ahal dituzten pertsonak kontuan hartuz ezarriko dira.

**4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****10. ZUZENKETA****EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua ordez honako testu hau jartzeko zuzenketa

"4. artikulua.-Prezioak: Prezioa ezartzeko, kontuan hartuko dira bai zuzeneko kostuak, bai kostu orokorren ehuneko jakin bat, dagokiona. Kostu orokorrak dira, adibidez, langile-gastuak, material eta kontserbazio-gastuak, finantza-kargak, zuzeneko zerikusia duten instalazioen amortizazioa, eta administrazio-gastuak.

Prezio horiek honelaxe ordainduko dira:

– Gauza direnentzako plazak betetzen dituzten kasuan: plazaren prezioaren ehuneko 80 ordainduko dute hilean, betiere aldikotasun horrekin jasotzen badituzte dirusarrerak; aldizkako dirusarrera horietatik ez da % 75 baino gehiago kendu ahalko horretarako.

– Laguntza behar dutenentzako plazak betetzen dituzten kasuan: plazaren prezioaren ehuneko 90 ordainduko dute hilean, betiere aldikotasun horrekin jasotzen badituzte dirusarrerak; aldizkako dirusarrera horietatik ez da % 80 baino gehiago kendu ahalko horretarako.

– Eguneko etxean egon behar dutenen kasuan: plazaren prezioaren ehuneko 90 ordainduko dute hilean, betiere aldikotasun horrekin jasotzen badituzte dirusarrerak; aldizkako dirusarrera horietatik ez da % 80 baino gehiago kendu ahalko horretarako.

Hilabete bakoitzerako ezarritako prezioen eta erabiltzaileek aldi horretarako ordaintzen dutenaren arteko aldearen ordainketa Foru Lege honen Hirugarren Tituluan erabiltzaile bakoitzaren urteko zorra finkatzean finkatutako kudeaketa arauekin bat likidatuko da.”

Zioak: Parlamentuak 1997ko ekainaren 3an onetsitako Plan Gerontologikoaren aurreikuspenekin bat etortzea dugu abiapuntu, plan horretatik heldu baita lege proiektua. Plan Gerontologikoaren filosofiaren barrenean adierazirik dago “Zaharrentzako zahar-etxeetako zerbitzuak erabiltzen dituenak bere ahalbide ekonomikoen arabera ordainduko ditu, gizarte justizia eta aberastasunaren banaketa zuzena aintzat hartuta”. Hori dela eta, gure ustez ez dator bat filosofia horrekin gehieneko prezioak izatea, horiek errenta handienak dituztenen onuragarri izanen baitira, denak muga bera izatean.

Zuzendu nahi den artikulua proposatzen duen formula erabiliz, Administrazioa ren finantzazioa 250.000 pezetakoa baldin bada laguntza behar duen baten plazarako zahar-etxe itundu batean erabiltzaileari 176.000 pezeta baizik ez zaizkio eskatu ahalko, dena ordaintzeko adina dirusarrera izan arren edo (ondarea salduta edo antzeko arazoengatik) diru aktiboak eskuratzen baditu ere. Gehieneko prezioak baldin badaude ez da kostu osoagatik zorrik sortuko. Gure proposamena ez da kaltegarria orain edo aurrerago dirusarrerarik ez duenarentzat, inolaz ere ezin izanen baitu ordaindu administrazioarekin izanen duen zorra, baina bermatzen du hilean gutxieneko diru kopuru batetaz baliatu ahal izanen dela bere ohiko gastuetarako; kopuru hori hileko dirusarreretan (erretiro-sariak, funtsak edo hilean-hilean sortzen diren bestelako aktiboak) oinarrituta zehaztuko da, bazterkeriarik ez gertatzeko, baina ez da horregatik zorra sortzetik geldituko hilean ordaintzen ez den zatiagatik.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehieneko prezioei buruzko artikulua, 4. a, aldatzeko zuzenketa.

4. artikulua ordez honako hau:

“4. artikulua. Prezioen progresibitatea

Zaharrentzako laguntza zentroen erabiltzaileek ordaindu beharrekoa zehazteko, progresibitatea izanen da irizpide, 2. artikuluan ezarritakoarekin

bat eta dagokion pertsona modu iraunkorrean hartzen duen zentro motaren eta plazaren arabera.

Zioak: Progresibitatearen irizpidea bide bat da ahalmen ekonomiko handiena duenak lagun egin dezan dinamika zuzenagoa lortzen.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aurkeztutako zuzenketa

“4. artikulua. Prezioak.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutual finkatu eta eguneratutako prezioak merkatukoak izanen dira, emandako zerbitzuen kantitate eta kalitatearen arabera.”

Zioak: Zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketaekin bat.

13. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa:

“Administrazioak ezartzen dituen prezioak edo administrazioarekin metatzen joan den zorra ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez izateak ez du inolaz ere ekarriko Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zahar-etxe berekietan, edo berarekin itundukoetan, edo udalen titulartasunekoetan inor tokirik gabe uztea, ez eta erabiltzaile izatetik gelditzea.”

Zioak: Edozein pertsonak titulartasu publikoko zahar-etxeetan edo itunduetan laguntza jasotzeko eskubidea duela argi eta garbi deklaratzeko da gure asmoa, egoiliar edo erabiltzaile gisa laguntza jasotzeko eskubide hori guztiendako dela bermatzeko eta bazterkeria ekonomikorik gerta ez dadin, baliabiderik ez edukitzeagatik edo Foru Lege hau aplikatuta finkatzen diren prezioen ondorioz sortzen den zorrari aurre egiterik ez izateagatik.

14. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“4. artikulua bis. Eguneko zentroak eta aldi baterako edo familien atsedenerako egonaldiak.

Plaza hauei ordainketarako eta honen progresibitateko 2 eta 4. artikuluetan aurreikusiriko izipide berak aplikatuko zaizkie, erabiltzailearen ondasunen gainean berme pertsonalik eratzeko betebeharririk gabe.

Zioak: Eguneko zentroen eta aldi baterako edo familiaren atsedenerako egonaldien ondorioa da zerbitzuaren kostuz gain badela beste kostu bat, zaharra familiartean bizitzeak dakarrena. Tarteko baliabideena da gure aukera, bai eta zaharren zainketa bere gain hartzen duten familien alde egitea ere, zaharra zahar-etxeetara bidaltzea ez sustatzeko eta zaharrak haien ingurunean egon daitezela laguntzeko.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluari aurkeztutako zuzenketa.

5 artikuluari lerrokada bat gehitzea.

“Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak berariazko unitate administratibo bat izanen du Lege honek ezarritako jarduketak kudeatzeko eta zahar-etxeetako zerbitzuen erabiltzaileen eskubiak zaintzeko.”

Zioak: Proiektuari aurkeztutako zuzenketekin bat.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

16. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari aldaketa egiteko zuzenketa:

6. artikulua aldatzea, honela idatzirik gelditu dadin:

“6. artikulua.-Pertsona bakoitzak hilean ordaindu beharrekoa zehaztea.

Zahar-etxean sartu aurretik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ebazpen bidez zehaztuko du erabiltzaile bakoitzak zenbat ordaindu behar duen hilean. Hori erabakitzeke, kontuan hartuko dira, 2. artikulua araberak, errenta, kapital higigarria, kapital higiezina eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua”.

Zioak: Hilean pertsona bakoitzak ordaindu beharrekoa zehazteko balorazio irizpideetan errenta, kapital higigarria eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua aurreikusten dira. Balorazio horren akatsa da, beraz, ez dituela kontuan hartzen kapital higiezinaren dirusarrerak, eta hori neurri desberdinekin neurtzea da, ez baita bidezkoa kapital higigarriaren dirusarrerak aintzat hartzea eta ez, ordea, kapital higiezinarenak.

17. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

6. artikuluari aldaketa egiteko zuzenketa.

Artikulu hau honela geldituko da:

“Zahar-etxean sartu aurretik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ebazpen bidez zehaztuko du erabiltzaile bakoitzak zenbat ordaindu behar duen hilean. Hori erabakitzeke, kontuan hartuko dira haren dirusarrerak eta ondarea, edo hari laguntza ematera legeak beharturik daudenean”.

Zioak: zahar-etxe batean sartu aurretik, erabiltzailearen eta hari laguntza ematera legeak beharturik daudenen dirusarrerak zehaztu beharra.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluan “erabiltzaile bakoitzak zenbat ordaindu behar duen hilean” hitzen atzetik honakoa gehitzea: “Zenbatekoa progresiboa izanen da, eta erabakitzeke, kontuan hartuko dira...”

Zioak: Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharrekoa ahalmen ekonomikoen araberak progresiboa izatea gizarte justiziakoa da. Kontzeptu hori legearen testuan agertarazi eta aurreragoko erregelamendu bidezko garapenean aintzat hartu beharko da.

19. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluan, lerrokadaren amaieran, honakoa gehitzea:

“Ordaindu beharrekoak ez du inolaz ere erabiltzailearen errentaren % 100 eginen.

Zioak: Erabiltzaileak hilean gutxieneko diru kopurua izan dezan bide ematea.

20. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

6. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Artikulu honi bigarren lerrokada gehitzea.

“Emandako zerbitzuaren kalitatea ez du erabakiko, inolaz ere, erabiltzaileek kostu horretan duten parte-hartzeak”.

Zioak: Erabiltzaile guztiekin berdin jokatzeko delatziartatzea eta erabiltzaile guztiek kalitateko zerbitzuak jasotzen dituztela bermatzea.

**7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****21. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

Erabiltzaileen betebeharrak ekonomikoetarako buruzko artikuluari, 7. artikuluari, aldaketa egiteko zuzenketa.

Artikuluaren bigarren lerrokadan, “lanbide arteko gutxieneko soldataren halako zortzi egiten duen zenbatekoa” esan beharrean hauxe esanen du: “lanbide arteko gutxieneko soldataren halako hamabi egiten duen zenbatekoa”

Zioak: Erreserba ekonomiko hau egokiagoa iruditzen zaigu, gure abiapuntua izanik pertsona zaharren baliabide ekonomikoak herritarrentzat oro har ezarritako gutxienekoen parekoak izan behar direla, berme gisa haien ondarea entregatzen baitute.

22. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari aurkezturiko zuzenketa

“lanbide arteko gutxieneko soldataren halako zortzi egiten duen zenbatekoa” esaldiaren ordean honako hau esanen du:

“lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 24 egiten duen zenbatekoa eta, haren ohiko etxebizitza izan den ondare higiezinak edukiz gero, merkatuan duen balioaren pareko kopurua, betiere ezaugarri horiekiko B.O.E. baten gehiengo prezioa baino altuagoa ez bada”.

23. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

7. erabiltzaileen betebeharrak ekonomikoetarako buruzko artikuluari, 7. artikuluari, gehiketa egiteko zuzenketa.

Hirugarren lerrokadaren amaieran beste lerrokada bat gehitzea:

Bermeak emateko desgaitasun frogatua ez du, inolaz ere, zerbitzua emateko ukoa edo atzerape-na ekarriko.

Zioak: Potere publikoak beharturik daude mintzagai dugun zerbitzu publikoa eskaintzera, alde batera utzita hura ordaindu behar den edo ez.

24. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari aurkeztutako zuzenketa

Lerrokada berri bat gehitzea:

“Berme erreal edo pertsonalen eraketa kontrolatzeko, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuen berariazko unitate batek Erregistro Ofiziala, nahitaezkoa, eramateaz arduratuko da, bertan agertarazteko alderdiek bermeak egitean beren gain hartutako obligazioak”.

Zioak: Gardentasun handiagoa.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

9. artikulua, prestazio ekonomikoa zehaztea

Artikuluaren bigarren lerrokadaren ordeztu, honako hau:

“Hilean egin beharreko prestazioaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da erabiltzaileak benetan ordaindutakoaren —4. artikulua araberak kalkulatu da— arteko aldea. Prestazio hori ez da, inola ere, diru baliabideen arabera zenbatetsirik zenbatekoa baino gehiagokoa izanen, salbu eta, 2. artikuluan aurreikusitako bezala, bermerik ezarritik ez dutenen kasuetan, eta zahar-etxeen erabiltzaileen eskura gelditu behar den diru erreserba pertsonala.”

Zioak: Aurkeztutako beste zuzenketa batzuetara egokitzea.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua azken lerrokada aldatzeko zuzenketa

9. artikulua azken lerrokadan aldaketa hau egitea:

“Jasotzen dituen zerbitzuen truke erabiltzaileak ordain ditzakeenak kalkulatzeko, hurrengoak erabiliko dira: errenta, kapital higigarria, kapital higiezinak eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua.”

Zioak: Hilean pertsona bakoitzak ordaindu beharrekoa zehazteko balorazio irizpideetan errenta, kapital higigarria eta familia-unitatea osatzen duen pertsona-kopurua aurreikusten dira. Balorazio horren akatsa da, beraz, ez dituela kontuan hartzen kapital higiezinaren dirusarrerak, eta hori neurri desberdinekin neurtzea da, ez baita bidezkoa kapital higigarriaren dirusarrerak aintzat hartzea eta ez, ordea, kapital higiezinarenak.

27. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

“Hilean, lanbide arteko soldataren halako 3,5 baino gehiagoko dirusarrerak eskuratzeko moduko gaitasun ekonomikoa aitorturik dutenek ez dute prestazio horretarako eskubiderik izanen.”

Zioak: Foru Lege proiektuaren asmoa da itundugabeko zahar etxe batetara edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren menpeko ez den batetara joaten diren pertsonak prestazio ekonomikoa jaso ahal izatea, hiler jasotzen dituen dirusarrerekin finkatu den kopurua gainditzen badute ere. Helburua izan behar da finantzazio publikoaren jomuga zahar-etxe publikoetara edo, gutxienez, itunduetara joaten direnak izatea, hauek, behinik behin, administrazioak ituna adjudikatze prozeduretan finkaturiko irizpideak bete behar dituztelako.

28. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aurkeztutako zuzenketa

Lerrokada berria gehitzea:

“Zahar-etxe pribatu edo itundu batetan tokirik ez izateagatik zahar-etxe pribatu baten erabiltzaile direnei Lehendabiziko Tituluan ageri den tratamendu ekonomikoa ezarriko zaie.”

Zioak: Premia duten pertsona guztiendako tokia bermatzea, antzeko tratuarekin.

29. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aurkeztutako zuzenketa

Lerrokada berria gehitzea:

“Erabiltzaile bakoitzari egindako prestazioaren zenbatekoa zehaztea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan zorra aitortzeaz arduratzen den unitate administratiboa, Lege honetan ezarritakoa beetzeko bosgarren artikuluan ezarritakoa betetzeko”.

Zioak: Gardentasun handiagoa kudeaketan.

**10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

30. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzea

Zioak: Ez dago argi adierazita. Berriz erredak-tatu beharko litzateke, argi eta labur.

31. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

10. artikulua. Prestazioa jasotzen duten per-sonen betebeharrak ekonomikoak.

Artikuluaren bigarren lerrokadan, "...lanbide arteko gutxieneko hileko soldataren halako zortzi egiten duen zenbatekoa" esan ordez, honakoa esatea: "...lanbide arteko gutxieneko hileko solda-taren halako hamabi egiten duen zenbatekoa".

Zioak: 7. artikuluari aurkeztutako zuzenketari egokitzea.

**11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

32. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehitzeko zuzenketa

Artikulu honi lerrokada berri bat gehitzea.

"Nolanahi ere, inor ez da zerbitzurik gabe gel-dituko behar adina baliabiderik ez izateagatik".

Zioak: zerbitzua eskatu eta behar duten guztiei zerbitzua ematen zaiela bermatzea.

**13 ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

33. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari aurkezturiko zuzenketa

13. artikulua hauxe gehitzea:

"Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan zorra aitortzeaz arduratzen den unitate adminis-tratiboak."

Zioak: Kudeaketa argiagoa izatea.

**14 ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

34. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluari aurkeztutako zuzenketa

"Urtero" hitzaren ordez "hiruhilabetero" jartzea.

**16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

35. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

16. artikulua. Zorra eskatzea.

Artikuluaren laugarren idatz-zatiaren ordez hauxe jartzea:

"Betearaztea, orobat, eten egingen da, baldin eta honako hauen bizitoki bakarra bada: ezkonti-dearena edo harekin elkarbizitza egonkorraren bidezko lotura duenarena, seme-alaba adingabe-na, minusbaliotuena edo baliabide sozio-ekono-mikorik ez dutenena, edo/eta beste norbaitena –persona horien beharra Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hala baloratuta."

Zioak: Bermeak ezartzea ondarearen exekuzioak beste kide batzuegan kalterik eragin ez dezan, babesik gabe utzita.

**XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

36. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa

Azken xedapenetan lehendabizikoari, testu amaieran honako esaldi hau gehitzeko zuzenketa:

“Bermeak eratzeko prozedura ez da kostu bidezkoa izanen prozedura betetzera beharturik daudenentzat. Prozeura honetatik heldu diren gastuak prozeduraz arduratzen den maila administratiboak hartuko ditu bere gain.”

Zioak: Bermeen prozedura eratzeko eskaera ez die gasturik ekarri behar erabiltzaileei.

37. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarria ordeztoko zuzenketa

Honako tetsu hau proposatzen da:

“9. artikuluan aurreikusiriko mugak ez dira aplikatzeok izanen titularra udala edo irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoa duten zahar-etxeen erabiltzaileen kasuan. Kasu horretan, egoera horretan dauden pertsonen prestazio ekonomikoa jaso ahal izanen dute, bakoitzak ordaindu beharrekoaren eta 4. artikuluko irizpideen arabera plazak duen prezioaren arteko aldea egin arte.”

Zioak: Argi utzi beharra dago udaletako zahar-etxeen edo irabazi asmorik gabeko zahar-etxe itundugabeen erabiltzaileek jasoko dituzten laguntzak edo prestazioak ez direla Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zahar-etxe berekien edo honekin itundutakoaren erabiltzaileek jasoko dituztenak baino mugatuagoak izanen. 9. artikuluan mugak ezarri beharko zaizkio “luxuzko zahar-etxe” izeneko horietako batera joaten direnei, hau da, administrazioak (foru komunitatekoak edo udalek) inolako esku hartzerik ez kontrolirik ez duen horien kasuan.

38. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarriari aldaketa egiteko zuzenketa.

Bigarren xedapen gehigarriari aldaketa hau egitea:

“Udalen zahar-etxeek, edo irabazi-asmorik gabekoek, dirulaguntzak jaso ahalko dituzte Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren aurrekontuaren kargura; dirulaguntza horiek hurrengoaren arteko aldea berdintzeko izanen dira: erabiltzaile bakoitzak ordaindutakoa gehi laguntza ekonomikoa, batetik, eta, bestetik, arau honetan ezarritako gehienezko prezioa edo, hori baino merkeagoa bada, plazaren prezioa”.

Zioak: Legeak ezartzen duen gehieneko prezioa eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak gehienez ere eman ahal izanen duen prestazio ekonomikoa ez dira oso urrutiko egon behar, hasiera batean defizita sortu baitaiteke, zentro laguntzaileen zahar-etxeek bere gain hartu beharoko dutena.

39. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarriari aldaketa egiteko zuzenketa

Esaldi honen ordeztoko: “eta ezarritako gehienezko prezioa”, haxe: “...eta ezarritako prezio publikoa”

Zioak: Egindako zuzenketen testuingurura egokitzea.

40. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarriari aldaketa egiteko zuzenketa

Testu berri honekin ordeztzea:

“Aldi bateko –gehienez ere, sei hilerako–, familiaren atsedenerako edo eguneko zentroetako egonaldietarako tokia eskatzen duten pertsonen ez dute foru lege honek ezarritako bermerik eratu

beharko; hala ere, hori ez da eragozpen izanen egonaldia ordaindu behar izateko.”

Zioak: Artikuluetan sartutako zuzenketaren testuingurura egokitzea.

41. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat txertatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Laugarrena.- San Francisco Javier Zentro Psikogeriatrikoko egonaldien eta eguneko zentroaren zerbitzuen tarifak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zehaztu, kudeatu eta likidatuko ditu, Foru Lege honetan aurreikusitakoarekin bat.

Zioak: Zuzenketa honen helburua da San Francisco Javier Zentro Psikogeriatrikoaren erabiltzaileek ordaindu beharrekoaren araubidea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren menpean dauden gainerako zentro psikogeriatrikoen erabiltzaileei aplikatzen zaien berdina izatea, zerbitzuaz baliatzeko baldintzak eta zerbitzu bera ere berdinak baitira.

42. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldi baterako xedapen bat txertatzea.

Aldi baterako xedapena:

“Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere zentroetan eta hirugarrenekin itundutako plazetan jarritako prezioak direla eta ordaintzeko dauden zorrak, preskribitu ez dutenak, diru bilketari buruzko arau publikoetan kasu guztietarako ezarritako prozeduren bidez eskatuko dira, premia-mendu bidea barne, betiere kobratzeko prozedurari hasiera eman ez bazaio Foru lege honek indarra hartu baino lehen”.

Zioak: Zuzenketaren xedea da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekiko zorrak kobratu ahal izatea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.

43. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldi baterako Xedapen berri bat txertatzea

Xedapen gehigarria:

Nafarroako Gobernuak hirugarren adinekoendako zerbitzu guztien finantzazioa arautuko duen lege proiektu bat igorriko du, sei hilabeteko gehieneko epean.

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da hirugarren adinekoei, oro har, ematen zaizkien zerbitzu guztiak ere arautzea, zahar-etxeen erabiltzaileek ordaindu beharrekoari buruzkoak ez eze.

44. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat txertatzeko zuzenketa.

Hona testua:

“Bigarrena bis.- Zahar-etxeetako egonaldiengatik hilean ordaindu beharreko gehieneko prezioak, Foru Lege honen 4. artikuluan deskribatutakoak, urtero zehaztuko dira Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.

Zioak: Zahar-etxeetako egonaldiengatik gehienez ordaindu beharreko prezioak onartzea beharrezkoa dela jabeturik, alderdi hori urtero Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean onartu behar dela ulertzen da, Foru Lege hau alda ez dadin gehieneko prezioen irizpideetan gerta litekeen aldaketa baten ondorioz.

45. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Azken xedapen berri bat gehitzea, eduki honekin:

“Azken Xedapenak. Laugarrena. Foru lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak amaituta izanen ditu Foru Komunitateko zaharrendako laguntza zentroen sarea eta amiliari sostengua eman eta etxeko laguntza

soziosanitarioko baliabideak, bai eta baliabide osagarriak ere, hala nola, pertsona zaharren joan-etorriak eguneko zentroetara, eta bestelako baliabideak ere, horiek zaharrak familian eta komunitatean integrazeko trabak direnean.”

Zioak: Plan Gerontologikoaren filosofia pertsona zaharrak familian eta komunitatean integratzea zen. Zaharrek ordaindu beharrekoa, eta Administrazio Publikoak pertsona horiek beren ingurunean gera daitezen egin beharreko ahalegin handiagoa batera etorri behar dira.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

46. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketa

Zioen azalpenaren 13. lerrokada kentzea.

Zioak: Gure ustez, prezioek emandako zerbitzuen merkatuko prezioa islatu behar dute, Administrazioaren dirulaguntzak gora behera; prezioak zehatu eta eguneratuko dira emandako zerbitzuen kopuruaren eta kalitatearen arabera.

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko irailaren 4ko 67 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko osoko zuzenketa aurkeztu dio Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektuari.

Zioak

Gobernuak, Biltzar honek eztabaida eta onetsi dezan, igorritako Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua patxadaz irakurri ondoren, honako ondorio hauek atera ditugu.

- Lege proiektu osoaren ikuspegia ez da nazioarteko harreman ekonomiko bidegabeak –egun herri txiroak egotea ekartzen dutenak eta horren arrazoi direnak– gainditzea, baizik eta ikuspegi guztiz paternalista batetik, garapenerako lankidetzaren limosna ematearen sinonimotzat jotzen baitu.

- Zehaztasun falta erabatekoa du legeak bilatzen dituen helburuak, printzipioak eta lehentasunak definitzerakoan. Ez da jasotzen zein diren legearen helburuak, ez zein tresna dauden Foru Komunitatearen aurrekontu politika lankidetzarako politikari egokitu eta harekin erlazioan jartzeko.

- Garapenerako lankidetzaren erabiltzeari begira, kontzepzio bat da lege proiektuarena, hura hartuta gehiago kanpo politikarako tresna gisa herri batzuek besteekiko jasaten duten mendekotasuna eta oinperatzea harremanerako eredu dituen egungo sistema deuseztatzeko politika gisa baino.

- Naturaltasunez onartzen du enpresa pribatuak garapenerako lankidetzaren arloan sartzeari bidea emanez enpresa horiek “lankidetzaren” jarduerarako fondo publikoak eskuratzeko, nahiz eta horretan interes zuzena izan dezaketen etorkizuneko merkataritza helburuak aurkitzeko.

- Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseiluak bete beharreko egitekoa hutsaldu eta urardotu egiten du, horren osaerari eta esleitzen zaizkion eginkizunei dagokienez. Osaeraren ikuspegitik, ez du ordezkapen-berdintasunezko irizpiderik, eta ez zaio izaera parte-hartzaile eta funtzionalik ematen (proposamen, jarraipen eta kontrolako eginkizunei dagokienez).

- Nafarroa Estatuko araubidepean jartzen du, Nafarroaren erabaki- eta jarduketa-ahalmenaren kaltetan, argi eta garbi. Adierazi beharrekoa da ez Konstituzioak ez Hobetzeak ez dutela garapenaren aldeko lankidetzaren aipatzen, baina abiapuntu gisa hartzen bada Nafarroa guztiz “eskudun” dela gizarte-laguntzaren esparruan, behartua dago bereak diren lege-irizpideen arabera jardutera.

Beraz, arrazoibide horretan oinarrituz, Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu Foru Lege proiektu berri bat bidal dezan; hain zuzen ere, “Garapenaren aldeko Lankidetzari eta Nazioarteko Solidaritateari” buruzkoa.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1 KAPITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. kapitulua ordezteko zuzenketa

Honako testu honekin ordeztea proposatzen dugu.

1. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua

Foru Lege honen helburua da ezartzea zer arauen bidez gobernatu behar diren Nafarroako

Foru Komunitateak herri pobretuekin dituen lankidetzak ekintzak.

2. artikulua. Lankidetzaren helburuak

a) Garapenaren eta elkartasunaren aldeko lankidetzak ekintzen oinarritzako helburua izanen da gizakia eta bere komunitatea ardatz hartuta garapena bultzatzea, lankidetzak eta elkartasun politikaren subjektu aktiboa diren partez, bai oraingo gizaldietarako eta bai etorkizunekoetarako, planetaren ondare naturala babestuz eta hondatutako bere habitatak leheneratuz.

b) Lankidetzak eta elkartasun politikaren helburua da, halaber, ekintzak garatzea nazioarteko harreman ekonomiko, finantzario, teknologiko eta kulturalak izan daitezzen herrien artean, betiere, berdintasunean, justizian, independentzian eta pertsonen eta herrien duintasunarekiko errespetuan oinarrituta.

c) Aurrekoan oinarrituz, Nafarroako lankidetzak eta elkartasun politikak honako helburu zehatz hauek izanen ditu:

1.- Lege honek indarra hartu eta bi urteko epean, lortzea Nafarroako BPGren % 0,7 planetako biztanle eta herri pobretuekin lankidetzak eta elkartasun programetarako izatea.

2.- Nafarroako gainerako aurrekontu-politika egokitzea aurreko a) eta b) puntuetan ezarritako helburuetara: hezkuntza elkartasun eta garapenerako; nekazaritza politikak bultzatzea, industriakoak etab., pobretutako herrien interesekin bat; gure herrira etorritako atzeritarrak berdinduz tratatzea... etab.

3.- Herrialde pobretuekiko kanpo zorra erabat eta baldintzarik gabe deusezta dadila eskatzea, eremu administratibo, politiko eta nazioarteko guztietan, bai eta nazioarteko operazio finantzario-espekulatzaile guztietarako karga bat ezartzea eskatzen duten ekimen guztiak laguntzea.

4.- Herrialde pobretuen produktuak bidezkoak eta zuzenak diren prezioetan gure gizartearen sartu, banatu eta saltzea bultzatuko duen merkataritza politika bultzatzea.

3. artikulua. Printzipio gidariak

Nafarroatik bultzatutako lankidetzak, azken batean historikoki eta azpiegituraz pobretutako herrialde eta herrietako gizarte sektore kaltetuekiko Nafarroako gizartearen duen elkartasunaren agerkaria baita, honako printzipioak izanen ditu gidari:

a) Herrien beregaintasun osoa errespetatzea, bai eta kanpotik datorren edozein esku sartze edo

inposizioaren aurrean babestea, politika, merkataritza, finantza, aduana edo beste edozein arlotakoa delarik ere.

b) Garapen eta elkartasunerako lankidetzaren plangintzak herrialde pobretuek beraien Foro, Gailur eta nazioarteko erakunde bidez ezartzen dituzten irizpideak lehenetsiko ditu.

c) Neurri horretan, garapen eta elkartasunerako lankidetzak herri horien ahaleginen ordezko eta osagarria den elementu gisa antolatuko da.

d) Lankidetzak eta elkartasun politikaren garapenean, jarduketarako oinarritzako irizpidea izanen da neurri praktikoak bultzatzea munduko pertsona eta herri guztien artean aberastasuna modu zuzen eta bidezkoan banatzeko.

e) Lankidetzak eta elkartasunak une oro bilatuko dute giza eskubideekiko konpromisoa, bakea eta Naturarekiko errespetua. Halaber, ekologikoki jasangarria den eta erabateko demokrazian eta estatu eta herrien desmilitarizazioan oinarritutako giza garapenaren alde eginiko ahalegin guztiak garatu eta lagunduko dituzte.

f) Nafarroako Gobernuak berak garatu beharreko lankidetzak eta elkartasun politikaren prestaketa eta bultzatzearen gizartearen partehartze aktiboa bultzatuko du, bai eta arlo horretako bere praktika bera ere.

Printzipio hauek gidari izanen dira Nafarroako Gobernuaren Administrazioak departamentu eta sektoreetan garatutako politika guztietan. Hartara, Nafarroako Garapen eta Nazioarteko Elkartasunerako Lankidetzak Kontseiluak urtero, agindu bidez, urteko aurrekontu orokorrak onesteari buruzko alde zuzentzeko txostena egingen du.

Zioak: Lankidetzaren helburu eta printzipio gidariak hobeki definitu eta zehaztea.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikulua ondoko honekin ordeztzea:

“1. artikulua. Helburua

Foru Lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitateak beste herrialde batzuekin lankidetzan aritzeko erantzukizuna bere gain hartuz burutzen dituen ekintzak arautzea. Lankidetzak horren helburua da, herrialde horietako biztanleen bizibaldintzak hobetzen laguntzea eta probetasun

egoerak xamurtu eta zuzentzea, betiere, giza-garapen solidario eta egonkorrari bidea emanaz, askatasun kuota handiagoak eta garapen ekonomikoaren emaitzen banaketa bidezkoagoa barneratuz.”

Zioak: Helburua argiagi adieraztea.

4. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

1. kapituluan beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“... artikulua. Garapenerako lankidetzaren eragileak

Lankidetzaren eragiletzat ondokoak hartuko dira:

- Foru Komunitateko Administrazioa
- Nafarroako Toki Administrazioak
- Lankidetzarako gobernuz kanpoko erakundeak, baldin eta ez badute irabazi asmorik eta beraien helburu zehatza garapenerako lankidetzajarduerak egitea bada.

– Entitate eta pertsona juridikoak, baldin eta haien helburu zehatza garapenerako lankidetzajarduerak egitea bada, nahiz eta irabazi asmoak izan.

Zioak: Egoki deritzogu garapenerako eragileak zein diren definitzeari garapenerako lankidetzan bakoitzak dituen erantzukizun eta inplikazioak argitzeko.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua ondoko honekin ordeztua:

“2. artikulua. Lankidetzaren helburuak

Foru Lege honek araututako lankidetzaren oinarriko helburua da herrialde pobretuenen garapena laguntzea eta bereziki:

a) Garapen bidean diren herrialdeak laguntzea ingurumenarekiko begirunea duen garapen iraunkor eta jasangarri erdiets dezaten, parte hartzea eta giza eskubideekiko begirunea gordetzen duen marko demokratiko batean, betiere, ukituta-

ko herrien parte hartzearekin beren garapen prozesu propioan.

b) Nazioarteko erkidegoko harreman komertzial, politiko eta estrategikoetan oreka handiagoa lortzen laguntzea, nazioarteko justizia eta bakea sustatuz.

c) Herritarren partehartzea sustatzea garapenerako lankidetzaren ekintzetan, garapen bidean diren herrialdeetako herriekiko konpromiso sozial handiagoaren alde gizarrean sortzen diren ekimenak babestuz.

d) Garapen bidean diren herrialdeen gizabaliabideak sendotzea, haien ekoizpen egiturak eta erakunde publikoak indartzea, eskualdeko integrazio-prozesuak babestea eta beregaina den garapena faboratzea.

e) Garapen bidean diren herrialdeetan gertatzen diren larrialdi egoerei aurre egiten laguntzea, laguntza humanitarioaren bidez.”

Zioak: Printzipio gidariak argitu eta helburuetatik bereiztea. Halaber, Nafarroaren lankidetzaren politikaren helburuak argi eta garbi adieraztea, estatuko legea aipatzera murriztu gabe.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa

3. artikulua ondoko honekin ordeztua:

“3. artikulua. Printzipio gidariak

Nafarroako Foru Komunitateak bultzatzen duen garapenaren aldeko lankidetzaren oinarri gure gizarteak pobretzea eta doakotasunaren arazo konpontzeko duen konpromisoaren koherenztatik abiatuta bideratuko da. Konpromiso horren arabera, garapenaren aldeko lankidetzaren ez da bideratuko, ez zuzenean ez eta zeharka ere, erakunde, organizazio edo enpresen aldetik inolako kontraprestazio ekonomikorik hartuz. Zentzu horretan, foru lege honetan araututako lankidetzaren printzipio gidariak ondoko hauek dira:

a) Gizakia da, bere jatorria edo nazionalitatea edozein delarik ere, lankidetzaren politikaren azken hartzaileak.

b) Nazioarteko zuzenbidea aplikatzea, giza-eskubideak eta askatasun publikoak babestea, herritarren partehartzea eta garapen jasangarriko politikak aplikatzea.

c) Planetako pertsona eta herri guztien benetako berdintasuna.

d) Lankidetzaren hartzaileek garapen sozial eta politikorako libreki hautatu duten eredia erabat errespetatzea.

e) Eskura dauden bitartekoak ahalik eta gehien aprobetxatzea.”

Zioak: Printzipio gidariak argitu eta helburuetatik bereiztea. Bereziki, herrien subiranotasunaren printzipioa ordeztzea –gaur egun eztabaian jarria beste batzuk aplikatzearen ondorioz, esku sartze humanitarioa kasu—nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen defentsaren aplikazioarekin.

7. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

3. artikuluko d) letra ordeztuko zuzenketa.

Honela dioen tokian: “Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du gizarte zibilaren sektore esanguratsuek parte har dezaten garapenaren aldeko lankidetzaren mamitzen eta gauzatzeko.”

Honela behar du: “Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du gizarte zibilaren sektore esanguratsuek parte har dezaten garapenaren aldeko lankidetzaren mamitzen eta gauzatzeko, administrazio horren zerbitzuko langile kontratatu edo funtzionarioak bertan parte har dezaten erraztuz.”

Zioak: Helburua garapenaren aldeko lankidetzaren sustatzea da eta kausa horien alde lan egin nahi duten pertsona solidarioei erraztasunak ematea.

8. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa:

3. artikuluan, g) letrara arte –berori barne—dagoen bezala utzita, h) letra honela idatz bedi: lehen lerrokada dagoen bezala utzi; bigarren lerrokada, ezabatu eta haren ordeztu ezarri: “Foru Komunitateko Administrazioak jarduketan eremuetan aplikatzen dituen politikak bat etorri beharko dute garapenaren aldeko lankidetzaren printzipioa eta helburuekin”.

Ondoren, honako puntu hau gehitzea: “i) Garapenaren aldeko lankidetzaren ez da bideratuko, ez zuzenean ez eta zeharka ere, erakunde, organi-

zazio edo enpresen aldetik inolako kontraprestazio ekonomikorik hartzeraz.”

Zioak: Gaiaren funtsa argitzen laguntzen du.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko azken lerrokada ordeztuko zuzenketa.

Honakoaren ordeztu:

“Printzipio hauek gidari izanen dira Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumenpeko ekintza eremu desberdinetan aplikatzen dituen politika guztietan, garapen bidean diren herriei erantzen ahal badie.”

Honako hau jar bedi:

“Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumeneko jarduketan eremuetan aplikatzen dituen politikak, baldin eta garapenaren aldeko lankidetzaren ukitzen ahal badute, koherentzia printzipioari jarraituko zaizkio”.

Zioak: Garrantzitsua da Administrazio Publikoaren jardueran zuzenduko duen koherentzia eta transbertsalitatea azpimarratzea.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluan i) letra gehitzeko zuzenketa.

Testua:

“i) Garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzak doakotasunaren printzipioak gidatuko ditu eta zentzu horretan, garapenaren aldeko lankidetzaren ez da bideratuko, ez zuzenean ez eta zeharka ere, Nafarroako erakunde, organizazio eta enpresen aldetik kontraprestazio ekonomikoa jasotzeraz.”

Zioak: Garrantzitsua dirudi lankidetzaren ekintzen printzipio gidarien artean doakotasunarena aipatzea.

11. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko azken lerrokada bi letra berriekin ordeztea:

“i) Koherentzia printzipioa errespetatu beharko da; horrela, Nafarroan garatzen diren politika orokor eta sektorial guztiak bat etorriko dira garapenaren aldeko printzipio eta helburuekin.

j) Doakotasunaren printzipioa errespetatu beharko da; horrela, garapenaren aldeko lankidetzaz ez da bideratuko, ez zuzenean ez eta zeharka ere, Nafarroako erakunde, organizazio edo enpresen aldetik inolako kontraprestazio ekonomikorik jasotzera.”

Zioak: Egokiagoa

**6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****12. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko a) letra ordezteko zuzenketa

Hurrengoaren ordeztu:

“Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak eta bestelakoak”.

Honakoa jartzea:

“Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, birziklapena, toki-profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak eta bestelakoak”.

Zioak: Testu berriak hobeki zehazten du lankidetzako ekintzen edukia.

13. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

6. artikuluko a) letrari gehiketa egiteko zuzenketa.

Honela dioen tokian: “Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak eta bestelakoak”.

Honela beharko luke: “Oinarrizko giza garapenari dagozkion programa eta proiektuak: elikagaiak bermatzekoak, oinarrizko hezkuntza eta giza baliabideak gertutzekoak, birziklapena, toki-profesionalen prestakuntza eta espezializazioa, osasun laguntza, ura hornitu eta edateko ontzeko programak; eta bestelakoak”.

Zioak: Garapenaren aldeko lankidetzaren eremuan izan daitezkeen proiektuen definizioa osatzea.

14. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko e) letra ondoko testu honekin ordeztea:

“e) Giza eskubideen aldeko ekintzak, garapen bidean diren herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzekoak, instituzio deszentralizatuak laguntzekoak eta gizarte zibila sendotzekoak.”

Zioak: Egokiagoa

15. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko e) letrari gehiketa egiteko zuzenketa.

Letra horren bukaeran ondokoa gehitzea:

“(…) garapen bidean diren herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzekoak”.

Zioak: Garapenaren aldeko lankidetzak sendotze demokratikoa bilatu behar du giza eskubideak behar bezala aplikatu daitezkeen.

16. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko e) letrari gehiketa egiteko zuzenketa.

e) letraren bukaeran ondokoa gehitzea: "eta garapen bidean diren herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzekoak".

Zioak: Bat egiteko Zioen azalpenetako bigarren lerrokada aldatzeko aurkeztutako zuzenketa-rekin.

17. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**
FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

6. artikuluko e) letrari gehiketa egiteko zuzenketa.

Honakoa gehituko zaio: "bai eta garapen bidean diren herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzekoak".

Zioak: Garapenaren aldeko lankidetzaren helburu nagusietako bat dela ulertzen dugu laguntza horren xede diren herrialdeetan sistema demokratikoak indartu eta ezartzea.

18. ZUZENKETA**PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6. artikuluko e) letrako lehen lerrokadari ondokoa gehitzea: "garapen bidean diren herrialdeetan sistema demokratikoak sortu eta indartzekoak".

Azken lerrokada aldatzea, bitan bereiziz eta honela erredaktatuz: "Kasu guztietan, lehentasuna emanen zaie garapenean jeneroaren egoera eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituzten ekintzei. Bereziki baloratu dira emakumeek beraiek edo haien erakundeek abiarazitako proiektuak, beren oinarritzko beharrak bai eta behar estrategikoak ere asetzekoak. Azken helburua izanen da emakumeen botere jabetzea delakoa faboratzea.

Halaber, kasu guztietan lehentasuna emanen zaie ingurugiroa eta baliabide naturalen zainketa eta erabilera jasangarria aintzat hartzen dituzten ekintzei."

Zioak: Duen garrantzia bereziagatik, jeneroaren gaia ez da aipatutako puntuen arteko bat gehiago, izan ere transbertsalitatea azpimarratzen baitu.

19. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa

Artikulu horren azken lerrokada aldatzea proposatzen dugu. Hona hemen proposatzen dugun testua:

Lehentasuna emanen zaie garapenean emakumearen egoera eta jeneroen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituzten ekintzei. Ekintza horien artean lehentasuna izanen dute:

a) Emakumeen erakundeek egindakoak.

b) Oinarritzko lanetan aritzen diren talde feminista eta emakumeen herri kolektiboak laguntza ematekoak.

c) Erkideengandik sortzen diren proiektuak.

d) Emakumeen behar estrategikoetan arreta jartzen duten proiektuak, helburua emakumeak zaintzaile eta hornitzaile gisa duen rol tradizionala gainditzea izaki.

Halaber, lehentasuna emanen zaie ingurugiroa eta baliabide naturalen zainketa eta ustiapen jasangarria aintzat hartzen dituzten ekintzei."

Zioak: Ongi da testuan jeneroari dagokion gaia aipatutako puntuetako bat gehiago ez izatea, izan ere transbertsalitatea azpimarratzen baitu; baina beharrezkoa da ingurugirotik bereiztea eta zenbait alderdi argiago azpimarratzea.

20. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Artikulu bat gehitzea, 6. artikulua ondoen. Hona hemen:

"6. artikulua. bis –Garapen eta gizarte sentsibilizaziorako hezkuntza

1. Garapen eta gizarte sentsibilizaziorako hezkuntza gisa ulertzen da gizarteak garapen bidean diren herrialdeen arazoak hobeki hautemateko eta solidaritatea eta haiekiko lankidetzak aktiboak biz-

kortzeko jardueren multzoa. Horretarako bideak izanen dira: zabalkunde kanpainak, informazio zerbitzuak, prestakuntza programak, garapen bidean diren herrialdeetatik datozen produktuekiko bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuen aldeko ekimenak laguntzea.

2. Nafarroako administrazio publikoek garapenaren aldeko lankidetzarako egiten dituzten programetan sartuko dute garapenaren eta gizarte sentsibilizazioaren aldeko hezkuntza ekintzak egitea, zuzenean edo garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzan.”

Zioak: Foru legean berariaz arautzea garapenaren aldeko lankidetzaren politikaren oinarritzeko alderdi bat; proiektuan zeharbidez aipatzen baita soilik.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hurrengo testuarekin ordeztea proposatzen dugu.

9. artikulua. Nafarroako Garapenaren eta Nazioarteko Elkartasunaren aldeko Kontseilua.

Garapenaren aldeko lankidetzaren eragileak koordinatu eta parte hartzeko premiaren erakusgarri, Nafarroako Garapenaren eta Nazioarteko Elkartasunaren aldeko Kontseilu bati ematen zaio arau, parte hartzeko, proposamenetarako eta jarraipena eta kontrola egiteko organo gisa. Erregelamenduak emanen dizkion antolamendua eta funtzionamendua izanen ditu.

Zioak: Argi eta garbi geratzen da proposatzen dugun testuan.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hurrengo testuarekin ordeztea proposatzen dugu.

10. artikulua. Kontseilukide diren entitate eta organoak

Kontseiluak departamentu eskudunaren kontseilaria izanen du buru eta hauek osatuko dute modu paritarioan: foru administrazioaren eta udal administrazioaren ordezkari bat eta Nafarroako Gobernuz Kanpoko Erakundeen beste bat.

Kontseiluak zilegi izanen du garapenaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko lankidetzan adituei gomita egitea aholku eman diezaioten.

Zioak: Foru lege proiektuak planteatzen duena baino osaera hobea da.

23. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

10. artikuluko lehenengo idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Haren bukaeran gehitzea: “Nafarroako garapen narko gobernuz kanpoko erakundeen kasuan, haien ordezkari bat Nafarroako GKEen Koordinadorearen baitan hautatuko da eta urtero berrituko.

Zioak: GKEen ordezkariak hautatzeko beharrezko tresnak ezarri nahi dira, kontuan hartuz asko direla eta aipatutako Koordinadora horretan antolatzen direla.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

24. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

g) letra hurrengo testuarekin ordeztea proposatzen dugu, bai eta bi letra gehitzea ere.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuentzako eta Nafarroako Parlamentuarentzako urtero txostenak modutzea, jakin ahal izateko Nafarroako Gobernuaren beste politika batzuk datozen garapenareko lankidetzaren nazioartekoaren helburuekin. Kontseiluak eginkizun hori egiteko erabateko ahalmena izanen du Gobernuak lankidetzaren arloan garatutako jarduerak eskuratzeko.

–) Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta toki enteei garapenaren aldeko lanki-

detzaren arloan planteamendu zehatzak eta jarduketa planak proposatzea.

→ Aktiboki parte hartzea urteko eta lau urteko jarduketa programak prestatzen, agindu bidez bere irizpideak eta planteamenduak agertuz. Halaber, programak onetsiko ditu.

Zioak: Kontseiluari eginkizun zehatz eta berriazkoagoak ematea.

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

b) letraren bukaeran hurrengo gehitzea: "Lau urteko plana informatu eta onestea."

Zioak: Estatuko legean ere jasotzen den aukeraren -lau urteko planak egotekoa- inguruko eskaera.

26. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

11. artikuluan, b puntuan, gehitzea "eta lau urteko plana onestea".

Zioak: Egin nahi den lana errazten du.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

27. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa.

12. artikulua, a): lerrokadaren bukaeran, "ingurugirokoa" hitzaren ondoren gehitzea "...; horietan gizarte zibilaren sendotzea bultzatuko da eta giza eskubideak errespetatuko."

Zioak: Giza eskubideen defentsan parte hartzeko beharra.

28. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

c) letra ondoko testuarekin ordeztzea proposatzen dugu:

c) Nafarroako jendarteko iritzia eta oro har gizartea eskolatu eta sentikortzeko programa eta proiektuak, herrialde pobretuen egoera ulertzeko eta errealitate horiek eragiten dituzten kausak eta herri pobretu horien errealitate horiek gainditzea ahalbidetuko luketen politikak ezagutzeko. Programa eta proiektu horien beste helburuetako bat da herrien eta pertsonen arteko elkartasuna bultzatzekoa.

Zioak: Errealitate horiek eragiten dituzten kausak hobeki ezagutu beharra gehiago azpimarratzea.

29. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

12. artikulua, c) letra

"garapen bideko herrialdeetan" esan ordez "herrialde pobretuak" esatea.

Zioak: Nafarroako gizarteak errealitatea eza-gutu dezan, bai eta pobretzea dakarten kausak eta hura desagertarazteko gure konpromiso eta elkartasuna ere.

30. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

12. artikuluan, c) lettran "garapen bideko herrialdeak" dioen tokian "herrialde pobretuak" jar-tzea.

Zioak: Termino hori askoz zehatzagoa da herrialde horietako benetako errealitatearekiko, bai eta haren kausekiko ere.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari d) letra gehitzeko zuzenketa

Gehiketako testua:

“d) Azpigarapenaren benetako kausa eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, bai dagokion eremu publikoen eskaeretan bai hegoaldeko herrialdeak pixkanaka gara daitezen neurri eraginkorrakoak hartzerakoan ere.”

Zioak: Garrantzitsua da azpigarapenaren kausak ezagutzea eta lankidetzaren arloan konpromiso aktiboa izatea.

32. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari d) letra bat gehitzea. Hona hemen testua:

“d) Pobretzearen benetako kausa eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, bai eta botere publikoei hegoaldeko herrialdeak pixkanaka gara daitezen neurri eraginkorrakoak hartzeko eskariak egiterakoan ere.”

Zioak: Egokiagoa.

33. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari –Ekintza arloak– gehiketa egiteko zuzenketa

Ekintza arlo bat gehitzea. Hona hemen:

“d) Pobretzearen benetako kausa eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, bai eta dagokion eremuetan hegoaldeko herrialdeak pixkanaka gara daitezen neurri eraginkorrakoak hartzeko eskariak egiterakoan ere.”

Zioak: Lehentasuna du, nazioarteko erkidegoko azken mugimendu eta ekimenei jarraituz, erakundearen garapenerako lankidetzaren ez mugatzea zergadunek herrialde pobretuetara fondoak bidaltzea soilik; horrek ez baitu epe luzerako konpon-

biderik ekartzen. Beraz, konpromiso instituzional aktiboa izateari ere garrantzia eman behar zaio, bai eta garapenaren aldeko hezkuntza zabalago bati ere.

34. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

12. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Letra bat gehitzea. Hona hemen:

d) “Pobretzearen benetako kausa eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, bai eta dagokion eremu publikoei hegoaldeko herrialdeak pixkanaka gara daitezen neurri eraginkorrakoak hartzeko eskariak egiterakoan ere.”

Zioak: Erakunde garapenerako lankidetzaren herrialde garatuetatik garatu gabekoetara fondoak bidaltze soilak izateari utzi behar dio eta lankidetzaren horrek garapenaren aldeko hezkuntza zabalagoa sustatu eta azpimarratu behar du, aktiboki.

35. ZUZENKETA**PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

12. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

12. artikuluari ekintza alor bi gehitzea. Hona hemen:

“d) Pobretzearen benetako kausa eta konponbideak azaltzerakoan presentzia eta konpromiso aktiboa izatea, bai eta dagokion eremu publikoei hegoaldeko herrialdeen garapena bultzatzeko neurri eraginkorrakoak hartzeko eskariak egiterakoan ere.”

e) Bidezko Merkataritza deiturikoa sustatzeko ekintzak eta herrialde pobretuen Kanpo Zorra erabat deusezteak.”

Zioak: Puntu horiek lortu nahi dena eskuratzeko egiten diren ahaleginak bideratzen laguntzen dute.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

36. ZUZENKETA

**PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

13. artikulua aldatzeko zuzenketa.

13. artikulua, b) letra. Lerrokadaren ondotik jarri "lankidetzaren gainerako eragileek egiten dituzten baldintza eta egoeretan."

Zioak: Gaiaren funtsa argitzen laguntzen du.

37. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikulua aldatzeko zuzenketa

Bi idatz-zati gehitzea:

–) Nafarroako erakunde publikoak erabiltzea erreferentziazko elementu gisa adierazpen publikoetan eta herrialde pobretuetako errealtateak eta horiek eragiten dituzten kausak salatzerakoan.

–) Nafarroako Administrazio Publikoen ekimena bera, herrialde pobretuetako produktuak gure lurraldean prezio bidezko eta zuzenetan sartu, banatu eta saltzea erraztu eta bultzatzeko.

38. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluari c) letra gehitzea. Hona hemen:

"c) Erakundeen adierazpenak eta garapen orokor, iraunkor eta harmonikoa sustatzen duten herri ekimenei laguntzea."

Zioak: Egokiagoa.

39. ZUZENKETA

**PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa

13. artikuluari letra bat gehitzea. Hona hemen: c) Jarrera aktiboa hartzea pobretzea dakarten egoeren aurrean, erakundeen adierazpenak egi-

nez eta giza garapen jasangarria sustatzen duten ekimenak lagunduz."

Zioak: Gaiaren funtsean parte hartzeko beharra azpimarratzen du.

**16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

40. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa

Artikulu hori ondoko testuarekin ordeztzea proposatzen dugu:

16. artikulua. Plangintza.

Nafarroako Gobernuak lau urteko ekintza planak egiten ditu, bere agintaldia hasi eta gehienez ere 6 hilabeteko epean, finkatzeko zer lehentasun eta helburu izanzen dituen foru lege honetan finkatu diren garapenaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko lankidetzak ekintzei dagokienez. Plan horiek Nafarroako Parlamentuan tramitatuko dira, Nafarroako Garapenaren eta Nazioarteko Elkartasunaren aldeko Kontseiluak onetsi ondoren.

Zioak: Zenbait alderdi gehiago zehaztea.

41. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

16. artikulua ondoko honekin ordeztzea:

"16. artikulua. Plangintza

1. Nafarroako Gobernuak urte anitzetako planak onetsiko ditu zehazteko, foru lege honek ezarritako arauen barnean, zer lehentasun eta helburu izanzen dituzten garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzek. Plan horiek Nafarroako Parlamentura igorriko dira eztabaidatu eta horiei buruzko irizpena emateko.

2. Nafarroako Parlamentuak urtero ezagutuko du, ezartzen den moduan eta Gobernuaren proposamen eta ekimenez, garapenaren aldeko lankidetzak politika. Horretarako, Nafarroako Gobernuak Biltzarrera igorriko du onets dadin hurrengo artikuluan aipatzen den Urteko Plana:

3. Gobernuak Nafarroako Parlamentuko batzorde eskudunari informatuko dio Plan Zuzen-tzailean eta Urteko Planean jasotako programa, proiektu eta ekintzen exekuzio maila eta betetze graduari buruz. Halaber, batzordeak lankidetzaren ebaluazioari buruzkoen berri jasoko du, bai eta aurreko ekitaldiko Urteko Programaren Kudeaketa Memoriak jasotzen dituen emaitzen berri ere.”

Zioak: Parlamentuak garapenaren aldeko lankidetzako jarduerak kontrolatzea ahalbidetzea, Estatuko legeak ezarritako moduaren antzera.

42. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua ordezteko zuzenketa

Honakoaren orde: “Zilegi izanen da plan horiek Nafarroako Parlamentuan tramitatzea.”

Honakoa jartzea: “Plan horiek Nafarroako Parlamentuak onetsiko ditu.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuak partehartze aktiboa izan behar du lankidetzaren arloan.

43. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

16. artikulua ordezteko zuzenketa.

Honela dioen tokian: “Zilegi izanen da plan horiek Nafarroako Parlamentuan tramitatzea.”

Honela behar du: “Plan horiek Nafarroako Parlamentuan tramitatu beharko dira.”

Zioak: Beharrezko iruditzen zaigu planak Parlamentuan tramitatzea eta hori egitea aukerakoa ez izatea.

44. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa

16. artikulua: azken esaldia aldatzea. Honela gelditzen da: “Plan horiek Nafarroako Parlamentuan tramitatu beharko dira. Plan horietako lehena lege honek indarra hartzen duenetik gehienez ere urtebeteko epean prestatu beharko da.”

Zioak: Lortu nahi diren planak eragingarriak izatea laguntzen du.

45. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Testua:

Nafarroako Gobernuak lau urteko ekintza planak eginen ditu finkatzeko, bere eskumenen esparruan, zer lehentasun eta helburu izanen dituen Foru Lege honetan finkatu diren garapenaren aldeko lankidetzari dagokienez. Lehenengo ekintza plana lege honek indarra hartzen duenetik gehienez ere urtebeteko epean onetsi beharko da.”

Zioak: Beharrezkoa da ekintza plana prestatzeko epe bat finkatzea.

46. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

16. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Artikuluari bigarren idatz-zati bat gehitu beharko litzaioke:

“Garapenaren aldeko Lankidetzari Legeak indarra hartu eta urtebeteko epea ezarriko da lau urteko ekintza planak prestatzeko.”

Zioak: Beharrezkoa da epe bat ezartzea lau urteko lehenengo plana prestatzeko.

17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

47. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Testuaren bukaeran ondokoa gehitzea proposatzen dugu:

...bai eta Nafarroako Garapenaren eta Nazioarteko Elkartasunaren aldeko Kontseiluak.

Zioak: Aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat egiteko.

48. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

18. artikulua aurretik beste artikulua bat sartzea, V. kapituluaren barruan. Hona hemen:

“17. artikulua bis. Lankidetzako eragileak

Lege honen ondorioetarako honako hauek izanen dira lankidetzako eragile:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

b) Nafarroako toki administrazioak indibidualki eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

c) Lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak, baldin eta irabazi asmorik ez badute eta euren helburu zehatza garapenaren aldeko lankidetzak jarduerak burutzea bada.

d) Entitate eta pertsona juridikoak, irabazi asmoak izanik ere beren helburuen artean garapenaren aldeko lankidetzak baldin badago. Edonola ere, entitate edo pertsona horien garapenaren aldeko jarduketak ez dira bideratuko ez zuzenean ez eta zeharka ere irabaziren bat lortzera; hala ere, aurreikusi gabeko etekinen bat lortzen badute, garapenaren aldeko lankidetzako beste ekintza batzuetan inbertitu beharko dute berriz.

e) Tokian tokiko talde kideak eta herrialde pobretuetako erakundeak.

Zioak: Egokiago.

**18. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****49. ZUZENKETA****PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

18. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Honakoarekin ordezte:

“18. artikulua: Lankidetzaren eragileak

Foru lege honen ondorioetarako lankidetzaren eragileak izanen dira ondoko hauek:

– Foru Komunitateko Administrazioa

– Nafarroako toki administrazioak

– Gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eraturako entitate pribatuak, irabazi asmorik gabek eta bere helburuen artean edo berariazko

xede gisa –beraien estatutuetan edo horren balio-kide den dokumentuan hala ezarrita– garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzako jarduera eremuarekin lotutako ekintzak –foru lege honen seigarren artikuluan aipatu direnak– gauzatzea badute.

– Entitate eta pertsona juridikoak, beraien berariazko helburuen azken xedea garapenaren aldeko lankidetzak izaki, nahiz eta irabazi asmorik izan dezakeen.

– Tokian tokiko talde edo contrapartes eta herrialde pobretuetako erakundeak.

Zioak: Garapenaren aldeko lankidetzan erantzukizun eta inplikazioak argitzea ahalbidetzen du.

50. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

18. artikuluko testuaren ordeztzeko beste bat jartzeko zuzenketa.

Testua beste honekin ordezte:

“Nafarroan, Garapenaren aldeko Lankidetzan GGKEek eta entitate pribatuak jardun ahalko dute”.

Zioak: Garapenaren aldeko lankidetzan agente sozial eta entitateak aritu daitezke.

51. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa V. kapituluari: Gobernuz kanpoko lankidetzak.

Kapituluaren hasieran beste artikulua bat gehitzea, honako eduki honekin:

18 bis artikulua.- Lankidetzarako eragileak

Jarraian zehazturikoak dira Foru Lege honek aipatzen dituen lankidetzarako eragileak; horiei ere garapenaren aldeko lankidetzan aritzeko Foru Legeak ezarritako baldintzak aplikatu beharko zaizkie:

– Garapenaren aldeko Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Irabazi asmorik gabekoak. Euren helburu berariazkoa garapenaren aldeko lankidetzari dagozkion jarduerak egitea da.

– Foru Komunitateko Administrazioa

– Nafarroako Toki Administrazioak
 – Tokian tokiko talde kideak eta herrialde txirotuetako erakundeak.

– Entitate eta pertsona juridikoak, Garapenaren aldeko lankidetzaren berriazko helburu dutenak.

Zioak: Argigarriagoa iruditzen zaigu lehendabizi Garapenaren aldeko Lankidetzarako eragileak definitzea, era horretan garapenean lan egiten duten eragile gehiago aintzat har daitezkeelako, eta erantzukizun eta parte-hartze ezberdinak bereiztea ahalbidetzen duelako.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

52. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua ordezteko zuzenketa.

Testuaren ordez beste hau jarri:

“GGKEek, jardun ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lege indardunen arabera nortasun juridikoa izatea.

b) Nafarroako Foru Komunitatean helbidea edo delegazio iraunkorra izatea, Foru Lege honen barrenean antolatzen diren ekintzei dagozkien erabaki eta kudeaketan gertaleku benetakoa izateko modukoak.

c) Irabazi asmorik gabekoak izatea.

d) Ahal dela, proiektuak egin behar diren eremuan bertako sozio edo kide bat izatea.

e) Bere programa edo proiektuetarako funts publikoak eskuratzeko, funts horiek emateari buruzko oinarrietan horiek eskuratzeko eskatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte.

Zioak: Lankidetzaren eragile bakoitzaren araubidea bereizirik egitea komeni dela iruditzen zaigu.

53. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua ordezteko zuzenketa.

Proiektuko 19. artikulua proiektuko 18. artikulua ordezteko zuzenketa da; halaber, 19. artikuluko lehen lerroa ordezteko zuzenketa da:

“Lankidetzaren eragileek eta Nafarroan garapenearako lankidetzaren esparruan jardun nahi duten entitate pribatuak honako baldintza hauek bete beharko dituzte.”.

Zioak: Egokiagoa.

54. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua ordezteko zuzenketa

b) letra testu honekin ordezteko zuzenketa da:

b) Nafarroan sozietate-egoitza izatea eta hori izatea hartzekoak diren erabakien eta egitekoak diren kudeaketan zentro benetakoa; halaber, Komunitatean era jarraitu eta frogagarrian egitea garapenaren aldeko lankidetzari eta solidaritateari loturiko jarduerak.

Zioak: Lankidetzaren eragileek Nafarroan egiazko jarduerak duela bermatzea.

55. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa:

19.c) artikulua ordezteko zuzenketa “gremio edo antzeko” esaten duen puntutik aurrera. Horrela geldituko litzateke: “nahiz eta helburu gisa garapenaren aldeko lankidetzaren ez izan, lankidetzaren proiektu batean parte hartu ahalko dute lankidetzaren eragileak eta entitateei lagunduz. Pertsona juridiko horiek irabazi asmoa izan ahalko dute euren helburu orokorren artean, baina nolana ere, egin lezaketan lankidetzaren ekintza zehatz eta definituak ezin izanen du, ez zuzenean ezta zeharka ere, irabazi edo etekin berehalako nahiz epe luzeorik eskuratzera bideratuta egon. Dena den, etekinik lortuko balitz, etekin hori garapenaren aldeko lankidetzaren jardueretan inbertitu beharko litzateke.

Gainerako lankidetzaren eragileek zaindu eta kontrolatuko dute Nafarroan garapenaren aldeko lankidetzaren arautzen duen solidaritate-printzipioa errespetatuz egiten direla jarduerak horiek”.

Zioak: Nahi dena argi uzten laguntzen du.

56. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa

Honako testu honekin c) letra ordezea proposatzen da:

c) Irabazi asmorik gabekoak izatea.

Zioak: Lankidetzaren beste merkataritza-jardueraren bat baizik ez izatearen guztiz aurka baikaude.

57. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa, 19. artikuluko c) letrari aurkeztua.

Ordeztea c) letraren edukia beste honekin:

“c) irabazi asmorik gabekoak izatea. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten erakunde pribatuen kasuan, baldintza horrek adierazten du erakundeak edo bere kideek ez dutela jarduera horien ondoriozko irabazi ekonomikorik eskuratuko, euren helburuen artean dauden garapenaren aldeko lankidetzako jardueretan inbertitzeko ez badira.”

Zioak: Irabazi asmorik gabeko erakundeak zer diren argitasun handiagoz definitzea, ezkutaturiko irabazi asmoak dauzkaten enpresa-izaerako erakundeen intrusismoa eragozteko.

58. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa

Honako testu honekin d) letra ordezea proposatzen da:

d) Proiektuak burutu behar diren eremuan bertako kide bat izatea, zeinak aske egon beharko baitu laguntza eskatu duen GGKEarekiko menpekotasun orotatik, juridikoak zein instituzionalak.

Zioak: proposatzen den testuan bertan esplikatzeko da.

59. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa, 19. artikuluko d) letrari aurkezturikoa.

Ken bedi d) letrako bigarren lerrokada.

Zioak: Jarrikeren helburua giza eskubideak babestea denean, edo zenbait herrialdetan, tokiko talde sozial batzuei laguntzeko hainbat jarduerari dagokionean, zailtasunak egon daitezke administrazio-baldintza itxi batzuk bete ahal izateko.

60. ZUZENKETA**PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

19. artikulua aldatzeko zuzenketa:

19. artikulua d): Lehen esaldia utzi eta gainontzekoa kentzea.

Zioak: Hainbat arrazoi dela-eta –herrian demokraziarik ez izatea, bitartekorik ez izatea eta abar–, erkideek nortasun juridikorik ez duten kasuak ekiditea.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA**61. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikulu horren ordeza, ondokoa jartzea:

20. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundearen erregistroa eta zentsua

1. Nafarroako Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakundeek izena eman beharko dute elkarte eta fundazioei buruzko legedian araututako administrazio erregistroetan, baldin eta diru publikoa jaso nahi badute.

2. Garapenaren aldeko lankidetzaren arloan eskumena duen Departamentuak zentsu batean bilduko ditu Nafarroako Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakunde guztiak. Zentsu hori erregelamendu bidez arautuko da.

Zioak: Administrazio Publiko beraren kargura administrazio erregistro ugari egotea eta GGKEek bat baino gehiagotan izena eman behar izatea ekiditea. Zentsu bakarra egonez gero, Foru Komunitateko Administrazioak ondo baino hobeto eginen lituzke egin behar dituen kontrolak.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

62. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa.

21. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzea eta ondo-koa jartzea:

“5. Garapenaren aldeko lankidetzak jarduerak egin eta 19. artikuluan jasotzen ez diren entitateen tributu araubidea Sozietateen gaineko Zeragri buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko XII. kapituluaren finkatzen dena izanen da.”

Zioak: Garapenaren aldeko Gobernu kanpoko Erakunde direnak eta ez direnak bereiztea, nahiz eta inoiz-edo horiek ere lankidetzak jarduerak egin eta, horrenbestez, tributuen arloan onura jaso ahal.

63. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21 bis artikulua gehitzeko zuzenketa

21 bis) Nafarroan garapenaren aldeko lankidetzan aritu nahi duten erakundeek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Lege indardunen arabera nortasun juridikoa izatea.

b) Nafarroako Foru Komunitatean helbidea edo delegazio iraunkorra izatea, foru lege honen barrenean antolatzen diren ekintzei dagozkien erabaki eta kudeaketan gertaleku benetakoa izateko modukoak.

c) Bertako bazkide edo kide bat izatea proiektuak burutu behar diren eremuan.

d) Bere programa eta proiektuetarako fondoak eskuratzeko, fondo horiek eskuratzeko oinarrietan eskatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte.

Pertsona juridikoen helburu nagusien artean irabazi asmoa egon daiteke, baina, egiten duten garapenaren aldeko lankidetzak jarduerak edo ekintzak jakin eta zehatzak ezin izanen du, ez zuzenean ez zeharka, etekin edo irabazi asmorik izan, ez berehalakoan ez epe luzean.

Edonola ere, etekinik lortzen baldin bada, garapenaren aldeko lankidetzak jardueretan inbertituko beharko da. Gainontzeko lankidetzak eragileek kontrolatuko dute Nafarroan garapenaren aldeko lankidetzak gorde beharreko solidaritate printzipioari jarraituz egiten direla jarduerak horiek.

Zioak: Artikulu berriak argiago uzten du zeintzuk diren entitate pribatuek lankidetzan aritzeko bete beharreko baldintzak.

23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

64. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

23. artikuluko 1. idatz-zatian puska bat gehitzeko zuzenketa:

Hala dio: “Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek...”

Eta honela beharko luke: Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek, hala funtzionarioek nola lan-kontratadunek...”

Zioak: Administrazio publikoen zerbitzuko langileek dituzten kontratu motak aintzat hartzea.

65. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

23. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa:

“2. Langile horiei aldi baterako zerbitzu-eginkizunak aitortuko zaizkie baldin eta beren administrazio publikoaren proiektu zein programetan parte hartzen ari badira, eta ondorio guztietarako jarduneko zerbitzuan jarraituko dute, non eta horrek ez dakarren haren lanpostuan ordezkatu beharra.”

Zioak: Gutxieneko lan-baldintza batzuk bermatu nahi zaizkie administrazioaren zerbitzuko langileei.

66. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

23. artikuluan idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

“5. Langile horiek zerbitzu berezietara pasako dira baldin eta beste entitate baten lankidetzaren programetan –diru publikoarekin finantzaturako programetan– boluntario edo kooperante gisa parte hartzen badute eta parte-hartze hori urteko hilabete baino gehiagokoa bada, nahiz eta lanpostuan ordezkatu beharrik ez izan. Aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, administrazio egoera horretarako ezarritako ondorioak izanen ditu, eta parte-hartzea boluntarioa bada eta urteko hilabete edo gutxiagokoa bada eta lanpostuan ordezkatu beharra ez badakar, aldi baterako zerbitzu-eginkizunak aitortuko zaizkio langileari.”

Zioak: Lanaren aldetik kalterik ez eragitea euren denbora lankidetzaren ekintzetan ematen dutenei.

67. ZUZENKETA**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL****FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA**

23. artikuluari idatz-zati bi gehitzeko zuzenketa

“6.1. Beste entitate batzuen garapenaren aldeko lankidetzaren programetan –diru publikoekin finantzaturako programetan– parte hartzen duten administrazio publikoen zerbitzuko langileei zerbitzu-eginkizunak zein zerbitzu bereziak aitortzeko baldintza izanen da langile horiek euren oporren kargura parte hartu izana azken bost urteetan garapenaren aldeko lankidetzaren programaren baten.

6.2. Administrazio egoera horiek ostera ere aitortzeko baldintza izanen da langile lankidetzaren programa berean jarraitzea gutxienez ere bi urtez. Epe hori aldatu ahal izanen da aparteko egoeretan.”

Zioak: Garapenaren aldeko lankidetzaren programetan parte hartzen duten langileen konpromiso serio eta jarraia bermatu nahi da.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****68. ZUZENKETA****PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Bosgarrena. Egungo Diru laguntzei buruzko Legea aldatuko da, hamar milioi pezeta baino gehiagoko diru laguntzak jasotzeko abala aurkeztera behartzen duen baldintza kentzearen.”

Zioak: Muntza handiko proiektuei oztoporik ez jartzea eta horiek eragindako administrazio gastuak ez areagotzea, benetako helburutik urrunduz.

**XEDAPEN IRAGANKORRARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****69. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 20. artikuluari eginiko zuzenketarekiko koherentzia gordetzea.

**AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****70. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa.
Hona:

“Azken xedapenak. Hirugarrena bis.

Sei hilabeteko epean Garapenaren aldeko lankidetzaren Kontseiluan aztertuko dira garapenerako lankidetzaren proiektuendako dirulaguntzetarako bermeak eskatzeak izan ditzakeen ondorioak, Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezartzen duen ekainaren 9ko 8797 Legea aldatzea egokia den ala ez ikusteko.

Zioak: Gobernuaren kanpoko erakundeak berme ez eskatzearen aldekoak dira, eskatzeak admi-

nistrazio gastuak garestitzen dituelako, proiektuak egiteko traba delako eta gastuak eragin zuzena duelako proiektuetan.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

71. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

Zioen azalpena. Lehendabiziko lerrokada

Lehendabiziko lerrokada honekin ordeztea: "Txirotasuna, demografia eta migrazio arloetako presioak, ingurugiroaren hondatzea, etnien artean ugaltzen doazen gatazkak, izurriteen hedapena, arma nuklearrak ugaltzea, narkotrafikoa bezalako arazoak, baita nazioetako mugak gainditzen dituzten bestelakoak ere, mundu mailan globalizatzen ari dira, geroan eta gehiago; globalizazio prozesu horrek nazioarteko erkidegoaren kide guztien arteko lankidetzat eskatzen du, lortu ahal izateko irtenbide eraginkorrak eta guztiontzat zuzenak. Bestalde, herrialde industrializatuagoen arteko aldeak, garapen ekonomiko eta sozialen mailan, handitu egin dira azken urte hauetan, kasu gehienetan. Azpigarapenaren kontrako lanean bide eta modu eraginkor bati heltzea arazo larri honi aurre egiteko konponbideen saioak askotan mugatzen eta baldintzatzen dituzten elkarloturak onartzea da. Azpigarapena desegiteak gaur egun dakar pentsatzea haren ondorioak hondamendizkoak izan ahal direla gizateriarentzat".

Zioak: Foru Lege proiektuaren gaia zuzenago kokatzea arazoan globalizazioan.

72. ZUZENKETA

**PARLAMENTUKO
TALDE MISTOAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa:

Zioen azalpenaren lehendabiziko lerrokadan, azken zatia, alegia "estupefazianteak produzitu, banatu eta kontsumitzea" dioena, kentzea. Dagoen bezala uztea, berriz, ondotik dioena, alegia, "edo zenbait izurrite". Ondoren, honako lerrokada hau gehitzea: "Dudarik gabe, arazo hauen sorburuan hauxe dago: nazioartean, harreman politiko eta ekonomiko bidegabeak areagutzen doazela

eta herrialde industrializatuetan nagusi den garapen ereduaren toki orotan ezartzen ari dela.

Zioak: : estupefazianteen arazoa ez da testuan aipatzen dena, baizik eta gaur egun nola gertatzen den hori, debekua, adulterazioa, nazioarteko mafiak, ustelkeria politikoa, etab. Gehitu dugun lerrokadak mintzagaiaren mamia argitzen laguntzen du.

73. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa

Zioen azalpena. lehendabiziko lerrokada.

" (...) estupefazianteak produzitu, banatu eta kontsumitzea".

Zioak: Droga estupefazianteen kontsumoaren arazoa ez dago halabarrez txirotasun eta azpigarapen egoerei loturik, eragile asko dituen egoera konplexua baita.

74. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Ordezteko zuzenketa

Zioen azalpena, 2. lerrokada

Testu honekin ordeztu aipatutako lerrokada:

"Gertaera horiei erantzun beharrez, Nazioarteko aspaldi baditu abiaturik garapenaren aldeko lankidetzat nazioartekoa bultzatzeko politikak eta planak: giza garapena sustatzeko helburuarekin (pertsonek gizarte jakin batean dituzten aukera eta paradak berretzeko prozesua: bizialdi luze osasuntsua izatea, norbere burua ezagupenez janztea, bizi maila itxurazkoa izateko baliabideak erdiestea, libertate politiko, ekonomiko eta sozialak bere esku izatea, sortzaile eta emankor izateko aukera izatea, norbere buruaren errespetua eta giza eskubide bermatuak izatekoa).

Garapenerako lankidetzak bi baliabide nagusi ditu: batetik, ekonomikoa, dirulaguntzen ikuspuntutik, hiru alderditan banatuta: lankidetzat proiektuak, laguntza humanitarioa eta garapenerako hezkuntza; bestetik, baliabide instituzionalak, botere publikoen jarduketetan gauzatuak, zenbait tresnaren bitartez, garapen bidean dauden herrialdeen sistema demokratikoak sortu eta sendotzeko

eta mundu mailako arau ekonomiko bidezkoagoak emateko.

Horrekin guztiarekin, eurt eragin nahi zaio pobreak bazterreratzeko joerari, eta giza garapeneko helburu errealdisten bidean aurrera egin, besteak beste honelako programak abiatuz: elikagaiak bermatzeko programak, oinarritzko hezkuntza, osasun edo etxebizitza zerbitzuak erdiestekoak eta kreditua edo teknologia bezalako produkzio baliabideak lortzekoak, instituzioak sendotzeko eta parte-hartze politikorako programak, gizon-emakumeen arteko berdintasuna iristeko programak edo ingurugiroa lehengoratzeko programak.”

Zioak: Jatorrizko testuan nahasirik zeuden garapenerako lankidetzaren bitartekoak eta helburuak.

75. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenean bigarren lerrokada ordezteko zuzenketa.

Testu honekin ordeztea bigarren lerrokada:

“Gertaera horiei erantzun beharrez, Nazioartekak aspaldi badiu abiatu garapenaren aldeko lankidetzaz nazioartekoa bultzatzeko politikak eta planak. Lankidetzaz horren helburua da giza garapena sustatzea (pertsonek gizarte jakin batean dituzten aukera eta paradak berretzeko prozesua: norbere burua ezagupenez janztea, bizi maila itxurazkoa izateko baliabideak erdiestea, libere politiko, ekonomiko eta sozialak bere esku izatea, sortzaile eta emankor izateko aukera izatea, norbere buruaren errespetua eta giza eskubide bermatuak izatekoa). Horretarako, Nazioartea bi bitarteko nagusiz baliatzen da: batetik, finantza baliabideak helaraztea, garapenerako laguntza ofizial gisa Produktu Nazional Gordinaren % 0,7ko kuota emanez, desiratzekoa den bezala, baina Nafarroan % 0,8koa izan beharko lukeena; hiru alderditan banatzen da laguntza hori: lankidetzaz proiektuak, laguntza humanitaria eta garapenerako hezkuntza; bestetik, jardun instituzionala, botere publikoek eta beste gizarte erakunde batzuek garapen bidean dauden herrialdeen sistema demokratikoak sortu eta sendotzeko eta mundu mailako arau ekonomiko bidezkoagoak emateko egindakoetan gauzaturik. Horrekin guztiarekin, eurt eragin nahi zaio pobreak bazterreratzeko joerari, eta giza garapeneko helburu errealdisten bidean aurrera egin, besteak beste

honelako programak abiatuz: elikagaiak bermatzeko programak, oinarritzko hezkuntza, osasun edo etxebizitza zerbitzuak erdiestekoak eta kreditua edo teknologia bezalako produkzio baliabideak lortzekoak, instituzioak sendotzeko eta parte-hartze politikorako programak, gizon-emakumeen arteko berdintasuna iristeko programak edo ingurugiroa lehengoratzeko programak.

Lankidetzaz proiektuen bitartez kapitala bidaltzea ez da herrialdeen txirotzearen arazorako behin betiko konponbidea. Behin betiko konponbide horrek nazioarteko egituren eta harremanen (bereziki ekonomikoen) aldaketa eskatzen du, herritarren eta gizartearen hezkuntzan eta sentibilizazioan aldaketa erabakigarriak gerta daitezzen, eta halaber, horiek ordezkatzeko dituzten erakunde berriazko konpromisoa. Hori dela-eta, Foru Komunitateko garapenerako lankidetzak, lankidetzaz proiektuak eta laguntza humanitaria bazter utzi gabe, jo behar du garapenerako hezkuntzara eta hegoaldeko herrialdeen garapena eragotzi edo mantsotzen duten inguruabarren azalpenean erakundeek jarrera aktiboa hartzea”.

Zioak: Ondorengo zuzenketekiko egokiagoa.

76. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

Zioen azalpenaren bigarren lerrokadari.

Bigarren lerrokadan, “...garapenaren aldeko lankidetzaz nazioartekoa bultzatzeko politikak eta planak...” dioten tokitik “...bermatuak izatekoa)” dioten artekoa ordezteko eduki honekin: “giza garapenerako lankidetzaz bultzatzeko politikak eta planak, bi osagaien inguruan eratuak: batetik, ekonomikoa, diru laguntzen ikuspuntutik (Barne Produktu Gordinaren % 0,7), hiru alderditan banatuta: lankidetzaz proiektuak, laguntza humanitaria eta garapenerako hezkuntza; bestetik, instituzionala, botere publikoen eta bestelako gizarte erakunde jarduketetan gauzatuak (zenbait tresnaren bitartez), garapen bidean dauden herrialdeen sistema demokratikoak sortu eta sendotzeko eta mundu mailako arau ekonomiko bidezkoagoak emateko”.

Zioak: Garrantzitsua da nabarmentzea lankidetzaz proiektuen bitartez kapitala bidaltzea ez dela herrialdeen txirotzearen arazorako behin betiko konponbidea. Behin betiko konponbide horrek nazioarteko egituren eta harremanen (bereziki

ekonomikoen) aldaketa eskatzen du, herritarren eta gizartearen hezkuntzan eta sentsibilizazioan aldaketa erabakigarriak gerta daitezzen, eta halaber, horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen berriazko konpromisoa.

77. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

Zioen azalpeneko bigarren lerrokadan, "Gertaera horiei erantzun beharrez, Nazioarteak"-en ondoren datorrena ken bedi; hau da, "aspaldi baditu abiatu..."-etik hasi eta "...desiratzekoa den bezala; eta bestetik,"-erainokoa. Lerrokadaren gainontzekoa dagoen bezala utz bedi, eta, horren bukaeran, hauxe gehitu: "Helburu horiek lortzeko, honako bi elementu hauen bidez egituratuko den lankidetzaren politikaren behar da: nazioarteko gaur egungo harreman bidegabeak saihesteko helburua duen ekintza instituzional eta gizarte zibilaren abiaraztea, batez ere aberastasuna munduan zehar banatuz eta demokrazia sendotuz -horretarako, beharrezkoa da gizartearen hezi eta sentsibilizatzea eta gizartearen ordezkatzeko duten erakundearen konpromisoa esplizitua-, eta lankidetzaren proiektuaren bitartez finantza baliabideak helaraztea, Garapenerako Laguntza Ofizial gisa, Produktu Nazional Gordinaren %0,7ko gutxieneko kuota emanez".

Zioak: arazoaren funtsa argi uzten laguntzen du.

78. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

Zioen Adierazpenari hauxe gehitu, 5. lerrokadaren ondoren:

"Garapeneraren aldeko lankidetzaz denaz bezainbatean, beharrezkoa da proposamen

berriak luzatzea merkataritza, ekonomia, finantza-merkatuen araupetze eta politika sozialen eta aberastasuna birbanatzeko abiarazteari dagokienez, garabideko herrialdeetan taxutzen ari diren gizarteetako hazkuntza-prozesuari begira.

Halaber, euren garapenean bertan protagonismoa duten populazioek parte har dezaten eta horiek programei atxiki dakizkien lortzea lehentasunezkoa izanen da, eta helburu eraldatzaileak ezarriko dira, laguntzaren xede diren herrialdeetan demokrazia gehiago indartzeko eta garapen instituzionala bizkortzeko".

Zioak: Proposatutako testuak zioen adierazpena osatzen du.

TITULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

79. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Legearren izena aldatzeko zuzenketa

Honako testu honen bidez ordeztu dadila proposatzen da:

Garapeneraren aldeko lankidetzari eta nazioarteko solidaritateari buruzko legea

Zioak: Hobeto egokitzen zaie aurkezturiko zuzenketen funtsari.

80. ZUZENKETA

PARLAMENTUKO TALDE MISTOAK AURKEZTUA

Ordezketak egiteko zuzenketa:

V. Kapituluak; izenburua: horren ordezkari "Lankidetzaren eragileak" jarri.

Zioak: helburu berberak lortzeko asmoz diharduten eragile gehiago aintzat hartzea ahalbidetzen du.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 19an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999

Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2000ko urriaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2000 urteko eztabaida egin dadin

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egiteko, Nafarroako Gobernuak komunikazioa igorri zuen. Hura tramitera onartzeko erabakia 2000ko urriaren 16ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hartan, lehenbiziko atalean, akats bat izan dela oharturik, hurrengo akats zuzenketa argitaratzeko agindu dugu:

“Biltzarreko Erregelamenduko 195. artikulua xedatutakoari jarraituz” dioen tokian “Biltzarreko Erregelamenduko 196. bis artikuluari jarraituz” esan behar du.

Iruñean, 2000ko urriaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Fruten sektorea hobetzeko planen finantziario buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak fruten sektorea hobetzeko planen finantziario buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondo-koek xedatuaren babesean, galdera egin dio Nafarroako Gobernuari. Galdegileak idatziz erantzutea eskatu du.

Nafarroako Gobernuak apirilaren 17an 162/2000 Foru Dekretua onetsi zuen. Foru Dekretu horrek finkatzen du zer laguntza emanen diren nekazaritza ustategietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteak bere gain hasteko. Hura garatzeko emandako maiatzaren 31ko Foru Aginduak ardoaren sektorean diruz lagun daitezkeen jarduketak ezarri zituen.

301/2000 Foru Dekretuak aurreko dekretua aldatu zuen. Aldaketa horietako bat da mahats landaketa eta birlanaketatetarako diru laguntzak kentzea. Horren arrazoia da bi bidetatik ekintza bat bera diruz laguntzeko ezintasuna, mahastigintzaren eta ardogintzaren Merkatuen Antolamendu Bateratuak mahastien berregituratzea finantzatzen duelako.

Bitxia da 301/2000 Foru Dekretuak bai bidea ematea fruten sektorean hobekuntzak egiteko planen bitartez finantzatzeko. Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1. Zergatik modurik badago diru laguntzak eskuratzeko fruten sektorean eta ez mahastigintzaren sektorean, diru laguntzak emateko egoera beretsuan daudenean?

2. Xedapen Iragankorrek ezarri zuen 301/2000 Foru Dekretuak indarra hartu aurretik (2000ko irailaren 21ean) aurkeztutako landaketa eskariak, aurkeztean indarra zuen araudiaren arabera ebartziko direla, eta bidea ematen du haiek Nafarroaren diruarekin finantzatzeko. Zenbat espediente daude egoera horretan, zenbat azalera hartzen dute eta zenbateko kostu finantzarioa dute Nafarroako Gobernuarentzat?

3. 2000ko irailaren 15eko Foru Aginduaren hirugarren xedapenak ezarri zuen "Mahastigintza eta ardogintzaren antolamendu komunarekin bateragarriak izanez gero...". Nafarroako Nekazaritza Garatzeko Programa jada onetsita badago eta ardogintzaren eta mahastigintzaren Merkatuen Antolamendu Bateratua era bai, noiz eta nork ezarriko du aipatu bateragarritasuna? zeri zor zaio Departamentuak oraindik ere hori argitu gabe edukitzea?

4. Irailaren 15eko Foru Aginduak –irailaren 25ean argitaratu zen– eskariak aurkezteko lehen epea (urriaren 1era arte) eta bigarren epe bat (azaroaren 15era arte) ezarri zituen. EVENAK urriaren 2an sektorea deitu zuen berregituratze plan horiek azaltzeko. Zer dela eta normaltasunik gabeko egoera hori?

5. Hobekuntza planei eta lehen instalazioei buruzko zenbat espediente, 162/2000 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenagoko lege-diaren arabekoak, daude ebazteko eta ordaintzeko? Zenbat diru egiten dute? Eta zenbat daude 162/2000 Foru Dekretuaren arabera ebazteko?

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 1997ko urriaren 3ko Ministroen Kontseiluaren erabakiaren babesean kontratatutako langile minusbaliatuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ministroen Kontseiluak pertsona ezgaituen enpleguari buruzko plan berariazkoa onetsi zuen 1997an. Hartan ezartzen denez, neurriak hartu behar dira 50 langile edo gehiagoko enpresetan lanpostuen ehuneko 2 langile ezgaituentzat gorde daitezen sustatzeko.

Betebehar hori dela-eta, aparteko kasuetan halakorik ez egiteko hautabideak ezri ziren. Hartara, 2000ko urtarrilaren 14an, kontratazio arloko betebeharrak betetzen ez diren kasuetarako hautabideak ezartzen dituen 27/2000 Errege Dekretua onetsi zen.

Hona neurri horietako batzuk: merkataritza kontratua egin ahal izatea enplegurako zentro

berezi batekin lehengaiak, makinak eta ekipoko ondasunak hornitzearren, merkataritza kontratua edo kontratu zibila egin ahal izatea enplegurako zentro batekin kanpoko zerbitzuak ematearren eta donazioak zein diruz babesteko ekintzak egitea lan munduan murgiltzeko jarduerak garatzearen.

Gauzak horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zenbat langile ezgaitu kontratatu dira Nafarroako Ministroen Kontseiluak 1997ko urriaren 3an onetsitako erabakiaren babesean?

2.- Zure ustez, Foru Komunitatean ezgaituak kontratatzeari dagokionez, eragin positiboa izan al duite Nazioko Gobernuak onetsitako neurriek?

3.- Zer neurri osagarri hartu ditu Nafarroako Gobernuak 1997tik hona pertsona ezgaituen enpleguaren aldeko plan horren jarraipena egitearren?

4.- Prestatu al du Nafarroako Gobernuak inolako neurririk ezgaituen kontratazioa sustatzearen eta horiek lan munduan murgil daitezen laguntzearen? Halakorik prestatu baldin badu, zer eragin izan du?

5.- Abian jarriko al du Nafarroako Gobernuak neurri berezirik urtarrilaren 14ko 27/2000 errege Dekretuaren jarraipena egitearren?

6.- Zer egoeratan onartuko du eta zein baldintza jarriko du Nafarroako Gobernuak 50 langiletik gorako enpresetan 27/2000 Errege Dekretuan ezartzen diren neurri osagarriak aplikatu ahal izan daitezen aparteko kasuetan?

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Hizkuntz Eskolako plazetarako eskariari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Hizkuntz Eskolako plazetarako eskariari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondo-koek xedatuaren babesean, galdera egin dio Nafarroako Gobernuari. Galdegileak idatziz erantzutea eskatu du.

“Iruñeko Hizkuntz Eskolan sartzeko lau eska-tzailetatik hiruk ez dute tokirik izaten”. Horixe zen bertako egunkari batek Nafarroako Hizkuntz Eskolaren egoerari buruz ematen zuen izenburua,

beste behin Foru Administrazioak eskainitako lekuak aski ez direla demostratuta.

Ezin diegu egungo eskariei muzin egin, Europako integrazioa maila guztietan gauzatu behar den garaian; gainera, belaunaldi berriei tresna ezberdinak eman behar zaizkie Europan gero eta lehiakorrago izan daitezen. Gurea bezalako erki-dego batean dagoen eskaria ezin da erantzunik gabe utzi. Hori guztia dela eta, jakin nahi dugu:

1. Zein neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hizkuntz Eskolan dagoen arazoari, hain zuzen ere lau eskaritatik hiru plaza-rik gabe gelditzeari, konponbidea emateko?

2. Aztertu al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hizkuntz Eskola zabaltzeko aukera, eskaintza zabalagoa egin ahal izateko eta eskolak emateko baldintzak hobetzeko?

3. Hizkuntz Eskolan 2000-2001 ikasturtean irakatsiko diren hizkuntza berriek ez dute maila ofizialik. Noizko aurreikusitako du Nafarroako Gobernuak hizkuntza horietako batzuek izaera ofiziala izatea?

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Gaitasun artistikoak arautzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak gaitasun artistikoak arautzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuak erabaki proposamen bat onetsi zuen 2000ko ekainean. Hartan, Gobernuak premiatzen du, hiru hilabeteko epean, gaitasun artistikoen arauak aurkez dezan –LOGSEko

43. artikulua ahalbidetzen duen bezala– eta Nafarroako Antzerki Eskolak ematen dituen ikasketak lanbide hezkuntzako arte dramatikoko berariazko ikasketa gisa aitortuak izan ahal daitezken.

Erabaki proposamen hori onetsi zenetik hiru hilabete igaro direnez, hauxe jakin nahi da:

1.- Noiz dauka Nafarroako Gobernuak galderaren azalpenean aipatzen diren auzi horiei buruz Parlamentuak emandako aginduak betetzeko asmoa?

2.-Parlamentuaren agindua atzeratzeko eta horrela gaitasun artistikoak ez arautzeko asmoa al du Nafarroako Gobernuak, nahiz eta hori Biltzarreko Osoko Bilkuraren agindua izan?

3.- Ezarriko al du Nafarroako Gobernuak kontusail berariazko bat 2001eko Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan Nafarroako Antzerki Eskolaren eskariei erantzuteko?

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Perituen eraikina Atarrabiako udaletxea izan dadin egiten ari diren negoziazioei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 16an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak perituen eraikina Atarrabiako udaletxea izan dadin egiten ari diren negoziazioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, galdera egin dio Nafarroako Gobernuari. Galdegileak idatziz erantzutea eskatu du.

Atarrabiako Udalak berriz ekinen dio Nafarroako Ekonomia Departamentuarekin hitz egiteari perituen eraikina Atarrabiako Udalaren esku utz dezan, bertan udaletxe berria jartzeko. Atarrabiako Udalak uste du horren enblematikoa den eraikin batek Udalaren ondarekoa behar duela izan, oso eraikin berezia delako eta hiriaren erdigunean dagoelako. Bi ezaugarri horiek direla eta, oso leku egokia da Atarrabiako etorkizuneko udaletxea jartzeko.

Ez da lehenbiziko aldia Atarrabiako Udalak higiezin horren erabilera eskatzen duena; izan ere, lehen ere hezkuntzan, bigarren hezkuntzako ikastetxe gisa, erabiltzea aztertu zen.

Badirudi Nafarroako Gobernua ez dela gai Atarrabiako Udalarekin ados jartzeko, eta egoitza horretan Foru Gobernuaren mendeko zenbait sozietate publikoren eta kontseilu arau-emailerren bulegoak jartzeko hasierako asmoarekin jarraitzen duela.

Hori guztia dela eta, jakin nahi dugu:

1. Zein da Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Atarrabiako Udalarekin Perituena eraikina Atarrabiako Udaletxea izan dadin egiten ari den negoziazioen egoera?

2. Egin al du Nafarroako Gobernuak sakoneko azterlanik zenbait enpresa publiko eta kontseilu

arau-emailerren bulegoak jartzeko erabilgarri dauzkan eraikinei buruz? Horri buruzko lan eta txostenen kopia nahi dugu.

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak administrazio publikoen gida-lerroetako bat lankidetzarena dela, legez ezarrita dagoen bezala, eta horrek beste administrazioekin akordioetara iristea bideratzen duela?

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak Atarrabiako Udalaren burugabekeria eta zuzengabekeria bat dela udaletxea Perituena eraikinean jarri nahi izatea?

Iruñean, 2000ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---